



ARGIA



ZENBAT GARA ELKARTEAK 30 URTE

Euskaltzaleen erresistentzia Bilboko erdararen inperioan



***"Futbolak politikak
baino indar
handiagoa dauka"***

16 | JOSÉ LUIS MENDILIBAR



***"Zalantza egiteko
eskubidea askatasunaren
oinarrietako bat da"***

44 | EIDER RODRIGUEZ



***"Egoera zailenei
aurre egiteko
tenple ona nuen"***

48 | XABAT ILLARREGI

2.942 | 2025 / 12 / 07 | 4 €



ARRIAGA EUSKARAZ GOZATU!

KONTZERTUA

NEOMAK

URTARRILAK 6



KONTZERTUA – FOYER ESPAZIOA

JON BASAGUREN

URTARRILAK 20



ANTZERKIA – AGERTOKI IREKIA

DESOBEDIENTEAK 18/98

URTARRILAK 8 - 10



KONTZERTUA

GONTZAL MENDIBIL

URTARRILAK 21



KONTZERTUA

GORA MUSIKA!

URTARRILAK 11



ANTZERKIA

AMOUR 10. URTEURRENA

URTARRILAK 29



ANTZERKIA – AGERTOKIA

RIKARDO III ETA NI

URTARRILAK 15



ANTZERKIA

KIMU

URTARRILAK 31



KONTZERTU ESZENARATUA

BERETERRETX

URTARRILAK 18



ANTZERKIA - AGERTOKI IREKIA

KANDIDA

OTSAILAK 3, 4



Bilbao

EL CORREO³ GARA Deia bbk³ Bizkaia

SE2

Basque

Basque

inaem

mondragon
Lingua

rcc
Medio Ambiente



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | BERRIKETA GUTXI
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO IRUDIA: **XABIER SAGASTA**

Iritziak

- 21 | JESÚS RODRÍGUEZ
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | SUKAR HORIA
- 23 | CASTILLO SUAREZ
- 24 | INMA ERREA

Finkoak

- 38 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA



36 | **LABORANTZARI AITORTZA, RIKARDO ARREGI SARIETAN**

37. Rikardo Arregi Kazetaritza sariak banatu zituzten azaroaren 26an Andoainean (Gipuzkoa). Jakoba Errekondok jaso zuen Ohorezko Mugarría saria, Euskadi Irratian eta ARGIAan baratzeari buruz egindako dibulgazio lanagatik. Jenofa Berhokoirigoinek jaso zuen Kazetaritza Saria, ARGIAan idatzitako *Mendez mende dabilen lanbidea, garai berrietara egokitu nahian* erreportajeagatik. Komunikazio Saria *On.eus* atariak jaso du euskaraz bizitzeko tresnak hainbat tipologiai herriarren eskura jartzeagatik. Errekondoren eta Berhokoirigoinen hitzartzeak jaso ditugu.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Bostehun urteren ondoren, fotovoltaikoen zilar goseak hondoratuko du Cerro Rico

Urko Apaolaza

16 | PERTSONAIA | JOSÉ LUIS MENDILIBAR

"Mundu honetan ez dakizu lau hilabetearen entrenatu gabe egoten"

Miel A. Elustondo

26 | EUSKARA | ZENBAT GARAK 30 URTE

Arnasgune bat, Bilboko basamortuan

Maria Ortega

32 | BOGA BOGA ELKARTEA

Ondarroan badakite nola lortu zahartzaro feminista

Leire Artola

44 | EIDER RODRIGUEZ

"Birziklapen erabatekoa behar dugu: ez utzi jendeari luzaro botere-posizioan egoten"

Leire Vargas

32 | XABAT ILLARREGI MARZOL

"Amestutakoa baino askoz ederragoa izan da anaiarekin horra heltzea"

Gorka Peñagarikano

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Beñat Badiola, Ekain Carrasco, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaizte, Leire Artola, Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga.

Diseinua

Maialen Arana, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Kortza

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUIKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuarentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202500064



OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.

Ez da eten

Eusko Jaurlaritzak Giza Eskubideen René Cassin 2025 Saria emango dio Francesca Albaneseri, Nazio Batuen Palestinako Lurralde Okupatuetarako errelatore bereziari. Albanese ezaguna da gurean, besteak beste, uztailean publikoki salatu zuelako hainbat enpresa multinazional Palestinako genozidiotik "etekin ekonomikoa" lortzen ari zirela. Horietako bat Beasaingo CAF zen, kritika eta salaketa ororen aurrean Jaurlaritza behin eta berriz haren defentsan agertu den enpresa. Palestinarekiko borroka internazionalista ez da eten, baina itxurakeria ere ez.

CAFen Beasaingo egoitzan hainbat lagun kateatu dira larunbatean, genozidio eta apartheidaren konplize zuzena dela salatzeko.

DANI BLANCO

 **AXIER LOPEZ**





CAE
NEGOZIDIORI

“Orain, ematen du euskal hiztun komunitatea pribilegiatua dela”

 EKAIN CARRASCO TELLAETXE



Euskal Herrian Euskarazek manifestazio nazionala egingo du abenduaren 6an Durangon, *Euskara biziberritzeko, Euskararen Errepublikak!* lelopean. Babes zabala jaso dute, alor ezberdinetako 30 eragilek baino gehiagok egin dute bat. Iraia de la Torre EHEko koordinatzailearekin (argazkian, ezkerrekoa) hitz egin dugu.

Marko juridiko-politiko propio bat garatzea aldarrikatu duzue.

EHEtik betidanik aldarrikatu da euskararen benetako normalizazio prozesurako ezinbestekoa dela independentziaren beharra: estatu propioa eta egitura juridiko politiko batzuk izatea. Azken urteotan EHEtik eragile independentista gisa aitortzen dugu gure burua, esplizituki.

"Larrialdi egoeran" gaudela ohartarazi duzue azken urteotan.

Azken hamarkadetan uste faltsu bat zabaldu izan da, zioena euskararen ezagutzak ekarriko zuela euskararen erabilera, eta hizkuntza politikak horretan oinarritu izan dira. Baina azken ikerketetan ikusi da hori ez dela horrela gertatu. Horrek euskalgintza hausnarrarean jarri du, eta hausnarketa prozesu horretan ikusi dugu larrialdi egoeran gaudela. Alde batetik, aipatutako hipotesi hori ezeztatu delako, eta bestetik, azken bizpahiru urteetan euskara koozifiala den lekuetan (EAEn eta Nafarroa iparraldean) atzerapausoak ematen ari

direlako. Eta hori dena, Espainiako Estatutik abiatu den oldarraldi juridiko baten erdian. Eskuin muturraren eta faxismoaren mundu mailako gorakada honetan, lortu ditugun eskubideetan atzerapausoak ematen hasi gara.

Nola dago euskararen aldeko borroka?

Gure sentsazioa da euskararen aldeko borroka azken bi hamarkadetan geldialdia izan duela. Batez ere, euskararen normalizazio prozesu bat egon delako. EAEn, saiatu dira euskarak bizi duen egoera normalizatzen instituzioen bidez, eta horrek, borroka guztietan bezala, apaldu egiten du herri mugimendua bera, kasu honetan euskararen aldeko herri mugimendua. Hala ere, ikusten ari gara belaunaldi berriak ari direla batzen euskararen borrokara, eta hau badator sentitzen dugulako ez dela benetako normalizazio prozesu bat aurrera eraman. Bestetik, euskara ofiziala ez den eremuetako jendea ari da batzen euskararen borrokara.

Euskararen afera erdigunean dago?

Orain, euskal hiztun komunitatea badi-rudi pribilegiatua dela, nahiz eta jakina den hori ez dela horrela eta euskal hiztun komunitateak ez dugun bermatuta gure egunerokoan euskaraz bizi ahal izatea. Diskurtso horri erantzuten ari gara. Beraz, bai, uste dut ari garela agenda politikoan etengabe nolabait eragiten. ●

MOTZEAN

Soldadutza boluntarioa ezariko da Estatu Frantsesean 2026ko udatik aurrera. Zerbitzuak 10 hilabete iraungo du eta ondoren, herritarrek erreserbara pasatuko dira.

Hertzainak taldeko hiru kidek Elkar diskoetxea auzitara eraman dute, leporatuta taldearen eskubide digitalak kontraturik gabe kudeatu izana. Diskoetxeak azken 30 urteetan horrela irabazitako dirua exijitzen dute.

ETBko zuzendari Unai Iparragirrek kargua utzi du lau urteren ostean. Isabel Octavio EITBko Estrategia eta Komunikazioa zuzendariak hartuko du lekukoa.

Gasteizko Udaltzaingoak ez du atxilotuen jatorriaren berri emango, Maider Etxebarría alkateak (PSE-EE) horri "uko" egin baitio.

Aldiz, Ertzaintzak hartutako bidetik, Kataluniako Esquadra Mossoek bai emango dute atxilotuen jatorriaren berri.

EHUren Leioako Campuseko euskarazko gradu guztien artean, hautazkoen %60 da euskaraz eta gainerakoak erdaraz. Hautazko guztiak euskaraz eskaintzen dituzten lau gradu baino ez daude.

BERRIKETA GUTXI

EZ HANKA EZ BURU

 **ADUR LARREA**
www.adurlarrea.com

Poltsa



IMANOL EPELDE PAGOLA
27zapata.eus

Urte batzuk badira ez gaituela Guardia Zibilak etxeko atea ostikoz botata esnatzen, ez gaituela kontroletan umiliatzen, metraileta, poltsa eta auzitegi nazionalarekin mehatxatzen. Ez lehen bezainbeste behintzat.

Urte batzuk badira senideak 40 minutuz bisitatzeko 900 kilometrora joan eta 900 kilometro etorri behar ez dugula. Ez garela errepide bazterretan hiltzen; ez gaituztela manifestazioetara atera bezain azkar jipoi-tzen. Ez, behintzat, lehen bezainbeste.

Baina, hor daude munstro denak gure subkontzientean. Hitz egin dezakegu, baina ez osoki. Beraien filtroetatik pasatzen ez den guztia terrorismoa da oraindik. Ez dute indarra ageriko egiten, ez dutelako beharrik. Otzandu gara. Otzandu gaituzte. Baina, nik dakidala, munstroak ez dira egun batetik bestera ain-geru bihurtzen. Ezta ipuinetan ere.

Nori sartzen diote orain burua Intxaurrendoko kuarteleko bainuontzian, nori jartzen diote poltsa arnasarik gabe geratu arte, zein bortxatzen dute orain inpunitate osoz Guardia Zibilen kuarteletan. Eta gu ez gara enteratu ere egiten. Zein isolatzen dute espetxeetako bakarkako moduluetan, zein zigortzen dute orain patiora atera gabe, zein urruntzen dute bere bizilekutik infinituraino, zeintzuk dira orain errepidean hildako dispersioaren biktimak, zein dira gaurko Mikel Zabazak, zein etxetara sartzen dira goizeko ordu bietan, zeini botatzen dizkiote ateak ostikoz, zein dira gaurko Enrique Galindo eta José Barrionuevo, zein inkomunikatzen dute bost egunetarako, zein lurperatzen kare artean. Nor geratzen da orain isilik?

Marlaska aurpegia du oraingo Espainiako demokraziak. Guapoa, bizarra ondo eginda, begirada errugabea. Besarkatzeko gogoia ematen du. Baina, guk badakigu, Marlaskaren aurretik bost egunez inkomunikatu eta torturatu zituzten euskal herritar mordoa pasatu zirela. Eta lehen ikusten ez zuena orain agindu egiten duela. ●



Lurzorua



ULA IRURETAGOIENA

Lurzorua eta lurra adiera berdinak ote diren begiratu dut hiztegian, desberdin erabiltzen ditugulako. Erdarazko *suelo* eta *tierra*, hurrenez hurren. Ematen du lurzoruan gertatzen dena gizakiari dagokiola eta lurrarena erreinu begetalari, baina lurzorua lurra ere bada.

Lorezainaren sentsibiltatea bagenu, jakingo genuke oinekin zapaltzen dugunaren azpitik mundu bizi aberats bat dagoela. Lurra entitate bizia baita. Lurrak barne egitura konplexua du, mikroorganismo askoren bizileku, denboran zehar "egiten" joan den lurrazpi bat, *txup txup* egiten duen lapiko baten antzera, astiro eta bere eboluzio prozesuekin.

Lurraren osasunari erreparatuz gero, eraikinen sotoak lortzeko (aparkalekuak eta trastelekuak irabazteko) eragiten ditugun lur mugimenduak barbaridade bat dira. Hondeatzaile batek lur eskukada bat hartzen duenean, urte askotan ontzen joan den sisteman puskaketa handi bat eragiten ari da. Azal batean, zauri bat. Ondoren, lurra lekuz mugitzen dugunean beste lur pila baten gainean kokatuz, bigarrenengo desatrea burutzen dugu. Lurraren barne egituraketa desordenatzen gabilta, emankortasuna itoz. Badago lurra onbideratzeko aukera, eragindako mina konpentsatzeko, baina horretarako lehenik burutu dugun sarraskiaren jabetza izan behar dugu. Ez jakinaren baldartasunaren ondorio latza.

Landare inbasore edo exotiko eufemismoarekin, lur bazterretan ateratzen diren landareen kontrako guda irekia dago, ez ditugu lurzoruan nahi. Izendapenak dio: kanpotik etorritako landareak akabatu behar ditugu, gure lekua hartzen ari direlako. Iruzurra desmuntatu behar da: landare espezie rustikoek eraikuntzak pobretu ditugun lurretan bizileku egiten dute gutxierekin bizitzeko gai direlako, eta horrela lurra onuratsen dute. Beraien presentziak deserosotasuna sortzen dute, seinalatzen ari baitira lurrari eragindako barrabaskeria, eta gure kontroletik kanpo dagoen bizitoki batean leku hartu dutelako. Izatekotan, landareak lurra lurzoru denean egiten dugunaren adierazle dira. ●



Erosi, merke eta asko

LEIRE ARTOLA ARIN

Saltoki handiek azaroan jada murgilarazi gaituzte Gabonetako kontsumismo basatian, eta sinetsarazi digute oparirik ederrenak preziorik onenean eskuratzeko unea haxe dela. Arin ibili behar zara Black Friday-n, bestela aukera galduko duzu. Atzera kontaketa martxan dago. Abisatu dizute badatorrela, momentu hau dela behar duzun zera hori erosteko onena, bihar ez kexatzeko garestiago erosi behar baduzu. Eskerrak eman beharko dizkiezu dendei, euren eskuzabaltasunari esker, %20ko deskontuarekin –euro pare bat merkeago, asko jota?– erosi baituzu zera hori, marketin adituen trikimailuei esker premia bihurtu zaizun hori.

Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Erakundeak (OCU) urtero ikertzen ditu Ostiral Beltzaren bueltan egiten dituzten kanpaina iruzurtiak, eta aurtien ere ohartarazi du aztertutako beherapenetatik %9 soilik zela "benetako mauka". OCUk salatu duenez, beherapenen iragarki askok ez dute eskaintzen azken 30 egunetako preziorik merkeena, arauak ezarritakoaren kontrara. Estrategia jakina da: aurreko egunetan produktuaren prezioa puzten dute, eta Ostiral Beltza delakoa heldutakoan beherapena ezartzen diote, baina hasierako prezioa baino garestiago edo pareko saltzen dute, halere. Beherapen faltsu horiek erabiltzeagatik, 2023an zigor ekonomikoak ezarri zizkien Espainiako Gobernuak zazpi enpresa handiri, guztira 350.000 euroko isunekin, eta tartean zeuden Carrefour, MediaMarkt eta PCComponentes.

Data hauetan ere arropa da gehien kontsumitzen den salgaia, eta hain justu, ehungintza da munduko CO2 isuriaren %10 eragiten duena, azken ikerketen arabera. Top Manta Bartzelonako kaleko saltzaileen arropa marka solidarioak azaroaren 28a probestu du datu argigarri bezain kezkarriak emateko: munduan XX. mende osoan kontsumitu zenaren baliokidea kontsumitu dugu sei urtean (2016-2021), eta une honetan nahikoa arropa dugu planetan beste sei belaunaldi janzteko. Moda azkarren eragina beldurgarria da: gaur egun duela hamabost urte baino %60 arropa gehiago erosten dugu Europar batez beste, baina arropa hori denbora-tarte erdian erabiltzen dugu, NBERen moda jasangarriaren aliantzaren txostenaren arabera. Zergatik baztertzen dugu jantzi bat? Hondatu edo zulatu delako, ala zaharkituta geratu delako? Zaharkituta, zeren arabera? Bere funtzioa bete dezake? Zuloa konpondu dezakegu? Neurritz txikia baldin badaukagu, lagun bati eman ahal diogu?

Gabonen atarian, ondo legoke buruan izatea Ipar Globalean gure kapritxoak asezten ari garen bitartean Hego Globalean ehungintzako langileak esplotatzen dituztela. 75 milioi pertsona inguruk egiten dute lan sektorean, eta %80 dira 18 eta 35 urte arteko emakumeak. Babes legal oso eskasa dute multinazional handien fabrikak dauden herrialdeetan, sindikatuzko oztopoak ezartzen dizkiete, eta miseriazko soldata dute.

Bulkada bidezko erostetak %72 igo dira 2020tik; posible al da kontsumismoaren munstroa geldiaraztea? ●

40

urte bete dira Espainiako Guardia Zibilak Mikel Zabalza torturapean hil zuenetik. Kasuko dokumentu klasifikatuak argitara emateko eskatu dute EH Bilduk eta EAJk Espainiako Kongresuan, baina eskaera baztertu du Espainiako Gobernuak.

%60

hazi da azaroan hegazkin pribatuen trafikoa Belémen, aurreko urtearekin konparatuta. Klima aldaketaren goi bileran parte hartu duten herrialde eta multinazionalen ordezkariak 297 hegaldi egin dituzte Brasilgo hirira eta 4.422 tona CO2 isuri dute.

2.000

Etxebizitzaren prezioaren etengabeko gorakadari aurre egiten ari dira Herrialde Katalanetan maizterren grebak. Eta greba horrek hiru erosketetan ia 2.000 etxebizitza publikatzea lortu dute, Generalitateak La Caixari erosita.

“Labrazako eolikoak bizilagunen bizi forma eta kalitatea arrisku larrian jarriko luke”

LABRAZAKO KONTZEJUA

Zentralak ekosisteman zein herritarren bizi-kalitatean kalte itzulezinak eragingo dituela ohartarazi dute.

HALA BEDI (2025-11-24)



“HERRIA BONBARDATZEN DIZUTE ERREPUBLIKA SUNTSITU ETA MONARKIA EZARTZEKO, ETA GERO MONARKA DATOR MALKOTXOA ISURTZERA. ZIRI EDERRA”

@DONMITXEL_I

Protestak izan dira Gernikan, Espainiako erregearen bisitaren harira.


X (2025-11-28)

“Erdalduntze makinan murgilduta dagoen Bilbo bezalako plaza batek apustu sendoagoa behar du euskarazko hedabideen alde”

‘URIOLA’ ETA ‘PREST’-EKO LANGILEAK

Bilboko euskara hutsezko hedabide bakarrenetakoak aurtengo abenduan itxiko dituzte, erakundeetatik jasotako dirulaguntzak nahikoa ez direla eta, proiektuak ez baitira “jasangarri”.

2025-11-26



Software librea etxean



DIANA FRANCO EGUREN

Etxepare Lizeoko ikasleek software librea oinarrituriko sistema eragilea zelan instalatu daitekeen partekatzen duen eskuliburu txiki bat sortu dute. Liburuxka horrekin, sistema eragile komertzialen aurrean, hala nola Windows 11, zaharkituta geratu diren ordenagailuei bizitza luzatzeko bidea ulergarriagoa egiten dutela uste dute.

Eskuliburua ikusteko aukera izan dut, eta oso ondo azalduta dagoela iruditu zait. Pausoz pauso eta irudi askorekin. Inoiz halakorik egin ez baduzu ere, gutxienez instalazio batek atzetik zein prozesu dituen hobeto ulertzeko gerturapea izan daiteke.

Eskuliburutik interesgarrien iruditu zaidana da egunerokorako gomendatzen dituzten programak; etxean egunerokoan software librea ibiltzeko aukera ugari gomendatzen dituzte. Baina zelan da posible hainbeste programa edozein pertsonaren eskura egotea? Nork finantzatzen du hori guztia?

Gaur egun software librea eremu ugarietan erabiltzen da, munduko enpresa nagusiek euren azpiegitura informatikoak mantentzeko darabilte, erakunde akademiko puntakoak software librea egiten dituzte garapen ugari, munduko gobernu ezberdinak subiranotasun teknologikoan urratsak ematen hasiak dira: Frantzia adibidez “La suite numerique” egitasmoarekin. Gainera, gizabanako, enpresa txiki eta ertainez osaturiko ekosistemak ezagutza horri ekarpenak egiten dizkiote etengabe. Horri esker, etxean software librea eguneratua izan dezakegu, ordenagailu berririk etengabe erosi barik. Gailuen bizitza luzatzeko aukera handitzen da. Bestalde, ditugun gailuen sistema eragileek egiten dugun erabilera bideratzeko gaitasuna duten garaiotan, etxean software libredun ordenagailuak erabiltzeak dinamika hauekiko botertzen gaituela uste dute. ●

A25: emakumeen aurkako biolentzia hizpide

BEÑAT BADIOLA ETXEBERRIA

Zuen hipokrisia indarkeria da! lelopean atera da aurtien kale-
ra Euskal Herriko Mugimendu Feminista. Adierazi du zabaltzen ari direla feminismoaren aurkako diskurtsoak “inpunitate osoz” Euskal Herrian. Ikuspegi interseksionala baliatuz, azaldu dute matxismoa hainbat zapalkuntzarekin gurutzatzen dela: “Emakume*, trans eta bollerok jasaten dugun indarkeria ez da ausazkoa; sistema kapitalista, zisheteropatriarkal eta arrazistak” hori betikotzeko dituen egitura eta mekanismoen ondorioa dela nabarmendu dute. Zentzu horretan, ohartarazi dute feministen aurkako mezuak, mezu arrazistak eta mezu transfoboak ari direla zabaltzen hedabideetan, sareetan eta kaleetan. Era berean jomugan jarri ditu “itun patriarkalak” dituzten konplizitate sareak. Adibide gisa, justizia: “justiziak etengabe uzten gaitu babesgabe, eta sinesgarritasuna kentzen digu”.

Itaiak, bere aldetik, klase borrokan zentratu du irakurketa. Salatu du “emakume langileek aurka indarkeria gordina” izaten jarraitzen duela. Adierazi dute, ideia “atzerakoiak” normalizatzen ari direla eskuineko eta eskuin muturreko alderdiak eta eragileak, “emakume langileen aurkako neurriak” hartzen ari diren bitartean. Egoera horren aurrean, Estatu Sozialistaren aldeko alternati-

baren alde egiten dutela adierazi dute, “indarkeria matxista amaitzeak langile klaseko kolektibo ezberdinen zapalkuntzak indartzen dituen gizarte ereduarekin amaitzea esan nahi duelako”. Kritika egin die alderdi politikoei eta instituzioei, esanez horiek indarkeria matxistarekin amaitzeko ez duela bide orririk. Gaineratu nahi izan dute, feminismoaren baitan kokatzen diren zenbait sektore “egitura kapitalistaren” baitan direla.

Emakundek, bere aldetik, *Ez da zure arazoa bakarrik, gurea ere bada* lelopean, gizarteari zabaltu nahi izan dio ardura, indarkeria matxista ez dela emakumeen arazoa soilik, aitzitik, gizarte osoarena dela nabarmenduz. Era horretan, adierazi du indarkeria matxista jasaten duten emakumeen inguruan saretu beharra dagoela. Emakundeko zuzendari Miren Elgarrestak gizartearen ginean jarri du “pilota”.

INDARKERIA MATXISTAK EZ DU ETENIK

2025ean, gutxienez sei emakume eta adin txikiko neska bat hil dira indarkeria matxistaren ondorioz. Hego Euskal Herriko erregistroen arabera, 7.600 salaketa baino gehiago jarri dituzte emakumeek indarkeria matxistagatik –batez beste 20 salaketa egunean–, eta eraso-tzaile gehienak bikotekideak edo bikotekide ohiak izan dira. ●



Feminismoa eta naziogintza eskutik joan behar dira

ENEKO IMAZ

Parte Hartuz ikerketa taldeak eta Subiranotasuna Europako Herrietan masterreko partaideek antolatutako *Nazionalismoa ikertuz* nazioarteko kongresuaren bigarren egunean, azaroaren 28an, feminismoak naziogintzan eta estatugintzan jorratzen duen funtzioa hizpide izan dituzte Bilboko EHuren Bizkaia Aretoan. Mahai ingurua dinamizatu duten Maider Galardi eta Olatz Daño-beitia EHuko irakasleek galdera luzatu diete hizlariei: “Zergatik ikusten duzue beharrezkoa estatugintza eta naziogintza feministotik lantzea, eta ikuspegi intersektzional bat ematea?”.

Maria Rodó-Zarate Bartzelonako UPF Pompeu Fabrako Unibertsitateko irakasleak erantzun zion lehenbizi galderari, eta argi adierazi zuen: “Generoa eta nazionalismoa ikuspegi intersektzionaletik lotu daitezke”. Hain zuzen, intersektzionalitatea, hizkuntza eta nazioaren erakuntza uztartzen ditu Rodó-Zaratek bere ikerketetan.

Azken mendeetan naziogintza eta feminismoa kasu ugaritan “talkan” egon direla aipatu zuen UPFko irakasleak, eta adibide gisa egun oraindik hedatua dagoen mito bat ipini: Feminismoa “nazioa banatzeko” tresna gisa erabiltzen dela. “Emakumeak subjektu pasiboak izan dira nazioen eraikuntzan, eta estatugintza maskulinitatearekin lotu ohi izan da”, adierazi zuen Rodó-Zaratek. Horren erakusle, XX. mendean Afrikan, Latinoamerikan eta Asian gauzatutako hainbat nazio askapen mugimendu aipatu zituen Rodó-Zaratek, baita estaturik gabeko nazioetako hainbat mugimendu independentista ere.

Salbuespen gisa, ordea, Euskal Herriko, Kurdistango eta Kataluniako nazioen eraikuntza mugimenduetan feminismoak ezinbesteko papera jorratu eta jorratzen jarraitzen duela azpimarratu zuen. Hain zuzen, Kataluniako kasua aztertu du Rodó-Zaratek beste hainbat ikerlarirekin batera, eta azpimarratu zuen analisi intersektzionalak nazio auzian dauden egitura ezberdinak ulertzeko “tresna ezin hobeak” direla.



EUSKO JAURLARITZA / IREKI

“Etorkinak baztertzen dituen proiektu politiko batek ezin ditu emakumeak integratu klase eta genero ikuspegi batetik” (Johannes Hess)

NAZIONALISMO FEMINISTAREN IKUSPEGI EMANTZIPATZAILEA

Johannes Hess Berlingo Freie Unibertsitateko ikerlariarentzat, “nazionalismo feministak ikuspegi emantzipatzailea” du. Nazionalismo tradizionalista, ordea, “gizonaren agintean” oinarritzen dela adierazi zuen: “Emakumeak nazioaren erreproduktzioa gauzatzeko funtzioa esleitzen dio, familiaren egitura tradizionalistan sakonduz”. Hessen arabera, nazionalismo feminista bi zapalkuntzen bateratzea denez, “gaitasun emantzipatzaile handiagoa” du.

Kataluniaren kasuaren azterketatik, Hessek zera ondorioztatu du: Kataluniako nazioaren ikuspegi tradizionalista edo nostalgia edukiz gero, ezaugarri femeninoak baztertzeko joera handiagoa dela. Azpimarratu zuen nazioaren eraikuntzatik “besteak” baztertzeak emakumeen

parte hartze politikoa ere murrizten duela: “Etorkinak baztertzen dituen proiektu politiko batek ezin ditu emakumeak integratu klase eta genero ikuspegi batetik”.

MUGIMENDU FEMINISTAREN LORPENAK

“Testuinguru geopolitiko arriskutsuan murgilduta gaude, ultraeskuinaren gorakadan, eta haren diskurtsoaren oinarri nagusietako bi feminismoaren eta etorkinen aurkakoak dira”, ohartarazi du Mila Amurrio Parte Hartuz taldeko kide eta EHuko irakasleak. Kolektibo zaurgarrien aurkako diskurtsoak gizartean “erraz” hedatzen ari dira, Amurrioren arabera.

Hortaz, estaturik gabeko nazioetan estatugintza eta naziogintza “ezkerreko ikuspegietatik” jorratzeko beharra azpimarratu du Amurriok: “Euskal nazioarekiko atxikipena sortzeko eta naziotasuna eta herritartasuna denentzako izateko”. Paper horretan mugimendu feministak azken urteetan “ekarpen esanguratsuak” egin dituela azpimarratu zuen Amurriok, demokrazioaren “izaera patriarkala” agerian uzteko eta estatugintzan zaintza sistema publikoa “lehen lerroan” kokatzeko.

Halere, Amurrioren aburuz oraindik asko geratzen da egiteko: “Genero estereotipo tradizionalak oraindik erdigunean dituzten egitura sozial, politikoa kultural eta ekonomikoak dira nazioak”. ●

BOSTEHUN URTEREN ONDOREN, FOTOVOLTAIKOEN ZILAR GOSEAK HONDORATUKO DU CERRO RICO

Potosí hiri ondoan, Boliviako altiplanoan 4.800 metrotara altxatzen den Cerro Rico mendia kolapsatzeko zorian dago. Ehunka galeriak zulatzen dute, espainiarren –eta euskaldunen– garai kolonialetatik esplotaturiko munduko zilar meatze garrantzitsuena. Adimen artifizialak, elektrifikazioak eta, batez ere fotovoltaikoen ezarpen masiboak, zilar eskaria handitu du, eta 10.000 meatzari dabilta gau eta egun, euren hilobia industen ari balira bezala ibili ere, aurretik beste milaka esklabok egin zuten gisan.

 **URKO APAOLAZA AVILA**

Boliviako armarrarian mendi baten itzala nabarmentzen da, eguzkia atzean duela: Cerro Rico da, Potosí hiri ondoan dagoen mendi mitikoa. Baina, agian, etorkizun ez oso urrun baten itzalik ere ez du izango, adituen arabera kolapsatzeko zorian baitago, ia bost mendetako meatzaritzaren ondorioz. Egiaz, mendiaren gaurko itxurak jadanik ez du zerikusirik antzinako armarrari eta grabatuekin... Ofizialki 4.753 metro ditu, jatorrian baino ia 250 metro gutxiago.

“*Puntita era pues*” (Tontortxoaren ba), diotso Petrona Santos Mamani izeneko amona batek Benjamín Swift kazetariari: “Boliviako sinboloa da eta orain hautsita dago”. Santosek bizitza osoa *palliri* moduan egin du lan –meazuloen kanpoan harria birrintzen duten emakumeek deitzen diete horrela ketxuaz–, baina 82 urterekin, jadanik ez du errekonozitzen haurra zela ezagutu zuen mendia. Mongabay hedabide independenteen elkarteko atarian jaso du Swift-ek amona horren testigantza, *In the heart of Bolivia, the mountain that financed*

an empire risks collapsing (Boliviako bihoitzean, inperio bat finantzatu zuen mendia kolapsatzeko arriskuan) erreportajea.

Iraganekoek bezala, gaurko konkistatzaileek ere begiz jota dute mendia. Baina orain, adimen artifiziala, elektrifikazioa eta berriagarriak dira haien akuilu, zainak zurrupatzen segitzeko: eolikoekin turbinentzako zinka, baterientzako beruna, erdieroaleentzako eztainua, eta batez ere, eguzki-plakentzako zilarra. Horiek dira txanpon-truke modernoak.

Kazetariaren arabera, mineralen prezioen gorakada izugarriak areagotu du meatzaritza Cerro Ricon. Gaur egun 10.000 lagunetik gora aritzen dira 54 “kooperatibatan” banatuta, eta horien guztien lana prozesatzen Manquiri enpresa dago, Coeur Mining multinazional estatubatuar boteretsuaren filiala. Aldiz, lan baldintzak ez dira duela lau edo bost mende baino askoz hobeak: 2025ean jadanik ia ehun hildako zenbatu dituzte istripuen ondorioz, azkenaldiko kopururik altuenetakoa.

Inork meatze horietan bizi diren egoerak birtualki ezagutzeko gogorik badauka, Ander Izagirreraren gaztelaniazko *Potosí* (Libros del K.O., 2017) liburua leitzea besterik ez du; Euskadi Literatura Saria eman zioten lan horrengatik: “Potositarrek azken kolapsoaren beldur dira, Cerro Ricoren historiarekin amaituko duen luitzi apokaliptikoaren beldur: bere barruan dozenaka milaka meatzariren hezurak daude, hezurren hautsa”.

EUSKALDUNAK LEHEN HIRI GLOBALEAN

1545ean, espainiar kolonizatzaileak herri indigenak esplotatuz Cerro Ricon zilarra erauzten hasi zirenetik, bere barrunbe aberatsak gizaldiz gizaldi hustu dituzte, ehunka galeria irekita. Zilar hori baitezpadakoa izan zen Europaren lehen industrializaziorako eta kapitalismo globala bultzatzeko. Urte gutxitan, mendiaren ondoan hiri kolonial alimalakoa jaso zuten, eta XVII. mende hasieran 100.000 biztanlerekin, Amerikako hiri populatuena eta Londres, Milan zein Europako beste hiri batzuk baino handiagoa bihurtu zen.

Zorioneko metal preziatua usaintzen iritsi zen jende asko, eta jakina den bezala, euskaldunak izan ziren jaun eta jabe negozioan. Potosíko kronikagile Bartolome Arzans Ursua y Velari kasu egiten badiogu, haranean zilarra lantzen aritzen ziren 132 *ingenio* edo fabriketatik 80 “nazio horren” esku zeuden. Euskaldunek Arantzazuko amaren kofradia sortu zuten Potosín, eta espainiar erregeekin tratutan, aginte postuak lortu zituzten, mundu osorako zilarrezko txanponak egiten ziren Casa de la Moneda kasu. Hori guztia ederki ikertu zuen Joxe Migel



AMERIKAKO HIRIBURU bihurtu zen Potosí XVIII. mendean; bere meatzetik ateratako zilarrak kapitalismo globala bultzatzeko balio izan zuen, orain energia eta industria trantsizioentzako funtsezkoa den bezala. Ordainetan, bostehun urtez mendia hustu ondoren, guztiz hondoratzeko zorian dago. / WIKIPEDIA

Esnaola frantziskotarrak *Arantzazuko Andre Maria Potosí hirian* liburuan, hiri inperialaren artxiboetako lehen eskuko dokumentazioa erabili.

Hain justu, garai hartakoa da euskaldunen eta espainiarren edo bikuinen arteko gerra. “Bikuina” deitzen zieten euskaldunak ez ziren beste herrialdeetako kideei (gaztelarrak, andaluziarrak, extremadurarrak, portugesak...), abere horren larruarekin egindako txanoa zeramatelako. Potosíko meatzeetan euskaldunek zuten nagusitasunarekin hautsi nahi izan zuten, eta 1622an Juan Urbietta izeneko gizasemea hil zutenean lehertu zen gatazka. Haren atzetik euskal jatorriko beste dozenaka lagun hil zituzten bikuinek. Horren aurrean, euskaldunek zera oihukatzen zuten, Arzans Ursua y Vela kronikariak jaso zuenez: “¡El que no responda en vascuense muera!” (Euskaraz erantzuten ez duena, hil bedi!). Baina azkenean, ez espainiar ez euskaldun, ez zuen inork irabazi. Aldiz, benetan galdu zutenak Andeetako altiplanoko herritarrek izan ziren, esklabo bezala lan egitera behartuak segi baitzuten (ikusi 14. orrialdeko koadroa).

**Hasierako garaietan
ez bezala, minerala
nahasiago dago oraingo
geruzetan eta lur gehiago
erauzi behar da zilarra
lortzeko. Soilik Manquiri
enpresak du hori guztia
txikitu eta lixibiatzeko
gaitasuna**

DIRUA JOAN, HILDAKOAK GERATU

XXI. mendean zilarra ez da palanka edo mailu hutsez erauzten: “Zulatzaille pneumatikoei esker meatzariak askoz azkarrago egiten dute lan, hoguei tonako iraulkikamioi bat bete dezakete egun gutxiren buruan, lehen asteak eramango lituzkeena”, dio Swiftek erreportajearen. Baina hasierako garaietan ez bezala, minerala beste material batzuekin nahasiago dago oraingo geruzetan, eta kooperatibek askoz lur gehiago erauzi behar dute zilar kopuru bera lortzeko. Soilik Manquiri enpresak dauka material hori guztia txikitu eta lixibiatzeko gaitasuna, hiriaren kanpoaldean duen prozesatze plantan. Horrela, aurrerakuntza teknologikoak elikatutako zirkulu estraktibistaren ondorioz, luiziak areagotu egin dira.

Meatzeen kanpoaldean, ordea, gauzak ez dira asko aldatu. Emakumeek jarraitzen dute lan prekarioenak egiten, sexu-erasoak eguneroko ogia dira, eta langile *peoiek* materiala lapurtzen badiete, esklabo bihurtzen dira zorra kitatzeko. Izagirreren liburura jo dezakegu berriz, hobeto ikusteko: “Denoi lapurtu digute, a todas, todas”, dio Rosa izeneko batek.

EZTABAIDA IREKIA: ZENBAT INDIGENA HIL ZIREN MEATZEAN LANEAN?

Konkistatzaile espainiarrak XVI. mende erdian Potosíra iritsi zirenean, hasiera batean Afrikako esklaboak erabili nahi izan zituzten hango meatzeak ustiatzeko, baina 4.000 metrotik goragoko klima gogorrek azkarregi hiltzen zituen. Orduan, indigenak errekrutatzen hasi ziren herriz herri, inken garaiko *mita* izeneko sistemen bidez: urtebetez espainiar erregea zerbitzatu behar zuten, beste zazpi urtez “libre” geratzeko. Hala, zenbait kalkuluren arabera, Potosín urtean 13.500 *mitayo* aritzen ziren hiru txandatan banatuta, baina horietako asko ez ziren bizirik itzultzen baldintza gogorrenatik.

2014ko uztailean, Cerro Rico ondoan dagoen El Minero meatzari au-



2014an Potosíko eskola batean azaldutako gorpuzkinen buruhezurrak; arkeologoek uste dute meatzean aritzen ziren langileenak direla.

zoko eskola batean obratan ari zirela, giza hezurak azaleratzen hasi ziren lurpetik. Lehenik gutxi batzuk, gero

zientoka. Potosíko unibertsitate publikoko arkeologoen ustez, baliteke meatzean aritzen ziren *mitayo*-en hilotzak gordetzeko hobi komun bat izatea.

Eduardo Galeanok, *Las venas abiertas de América Latina* (Latinamerikako zain irekiak) obra literarioan idatzi zuen “zortzi milioi indigenen hilotzen” gainean eraiki zela Potosí. Geroztik zifra hori hainbatetan errepikatu izan da, baina Herbert S. Klein, Carlos Sempat Assadourian eta aro koloniala ikertu duten historialari ezagunek ukatu egiten dute halakorik. Oso zaila da meatzean hil ziren esklabo kopurua milaka edo milioika zenbatzea. Nolanahi ere, asko izan ziren, gehiegi.

Munduko ekonomia bultzatzeko giltzarri izan zen arren, Cerro Ricoko aberastasunaren zati ñimiñorik ez da inoiz eskualdean geratu: “Jendea Potosíra iritsi zen, aberastu egin zen eta ospa egin zuen”, azaldu du Hernán Ríos geologoak, Mongabayko Swiften galderei erantzunez. Potosí da Boliviako departamentu behartsuena. 480 urteotan, kapitalak zuzenean herrialdea abandonatu ez badu, orduan beste hirietara egin du ihes, eta mendia kontserbatzeko inbertsioak hutsaren hurrengoa izan dira.

2010ean luizi batek krater handi bat ireki zuen gailurretik gertu, eta beste

**Meatzeen kanpoaldean
emakumeek jarraitzen dute
lan prekarioenak egiten,
sexu-erasoak jasaten
dituzte, eta materiala
lapurtzen diete**

askok jarraitu zioten horren ondoren. UNESCOk, 2014an, arriskuan den munduko ondarearen zerrendan gehitu zuen Potosí, eta 2022an auzitegi batek agindu zuen 4.400 metrotik gorako meazulo guztiak ixtea, handiegia zelako behera erortzeko probabilitatea. Geroztik, badago proiektu bat hondoratzeko zorian dauden galeriak hormigoiz betetzeko: 3,5 milioi dolarreko aurrekontua du, mendeetan zehar zilar esplotaziotik lortutako etekinaren “%0,00000001 besterik ez dena”. Baina dirua argiaren abiaduran joaten da Cerro Ricotik, eta hildakoen hautsa, berriz, betirako geratu. ●



Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Une oro,

Freshkagarri Naturala!

Betiko Sagardoa



SAIZAR

Sagardoa

www.sidrassaizar.com



José Luis Mendilibar

FUTBOLA ETA GERO, ZALDIBAR



MUNDU HONETAN EZ DAKIZU LAU HILABETEAN ENTRENATU GABE EGOTEN



Orain dela 30 urte hasi zen futbol entrenatzaile lanetan, inoren zuloak betetzen ez gutxitan, edo, zenbait kasutan, entrenatzeko talderik gabe eta nork edo nork deitu zain. Halaxe zegoen 2025eko udaberrian, batere uste ez zuela Greziako Olympiakosera joateko deia jaso zuenean. Eta joan, eta tituluak bata bestearen atzetik irabazi!

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Apur bat kostatu zaigu zurekin hitzordua egitea, Greziatik hona eta hemendik hara zu...

Bai, baina, hasiz gero, ez dut presarik edukitzen. Gainera, hau ez da futboleko elkarriketak bezala, entrenamendu aurretik edo ostean prentsarekin egon beharra. Badakizu, gutxi gorabehera, halako eta halako galdetuko dizutela. Batez ere, partidu ostean. Eraitza zelakoa izan den, galderak aldatu egiten dira. Hala ere, niri galdetu, eta nik erantzun egiten dut. Ondo edo txarto, baina eran-

tzun. Batzuetan erantzuna ondo pentsatu behar izaten da baina! Eta gero eta gehiago, gainera.

Ea, bada, ez duzun askorik pentsatu behar guri erantzuten. Baina euskaraz, behintzat.

Bai! Sestaon jokatu nuen garaian, behin ETBtik deitu zidaten. Pedro Mari Goikoetxeak telebistako estudioa joateko eskatu zidan, bertan elkarriketa egiteko, zuzenean. Ezetz esan nion, euskaraz berba egitea asko kostatzen zitzaidala-

ko. Denbora hartan ez nintzen kapaz. Gero, ezkondu nintzenean, seme-alabak izan genituenean, euskaraz hasi nintzen berri, eta zer edo zer!

Zaldibar herri euskalduna zelakoan nengoen.

Bai, baina guri, ume ginenean, Francoren denbora tokatu zitzaigun. Eta eskolara joan, eta ez ziguten uzten euskaraz berba egiten. Segituan zen kastigua! Niri ia ahaztu egin zitzaidan, ze euskaraz berba etxean baino ez nuen egiten, gurasoekin.



José Luis Mendilibar Etxebarria

ZALDIBAR, 1961



Futbolaria lehen, futbol entrenatzailea gero. Hainbat talde zuzendu ditu, sailkapenaren zulotik atera ere bai, baina nazioartean irabazitako tituluek ezohiko sona eman diote: Sevillarekin UEFA Europa League irabazi zuen 2023an, eta Conference League titulua aurten Greziako Olympiacosekin. Eta han eta hemen ez dabilenean, Zaldibarren da, Orhiko xoriarena eginez beti.

Arreba bat daukat, eta etxean euskaraz egiten genuen, baina kalean lagunekin-eta, dena erdaraz! Baserritarrek eta orduko umeen gurasoek baino ez zuten euskaraz berba egiten.

Futbolari –ez txarra– izan zinen, entrenatzaile aipu eta sona handikoa zaitugu orain. Zelan sartu zinen futbolaren munduan?

Umetan, Zaldibarren, futbola eta pilota ziren. Neguan, futbola izaten zen. Udan, berriz, pilota. Nik, 17 urte arte, biak egin nituen. Esate baterako, Zaldibarrekin, birritan herri-artekoen txapel-dun izan ginen Bizkaian; behin, infantiletan eta, bestean, jubeniletan. Baina 17 urterekin “edo futbola edo pilota” esan zidaten, eta bat aukeratu behar izan nuen. Zaldibarren ez zegoen futbol talderik, eta Durangon jokatzeko hasi nintzen, Culturalen. Hurrena, Bilbao Athleticetik fitxatu ninduen eta Lezamara joan nintzen.

Ikasketarik ez zenuen egin?

Bai! Akabo, ba! Zaldibarren eskolan bukatu eta Durangora joan nintzen, maristetara, lanbide heziketa egitera: mekanikari ikasi nuen. Bost urte ziren, bi ziklotan banatuta: lehenengo lau urteak segidan egin nituen, azkena ez, ze Lezamara joan behar nintzen entrenatzera, eta eskolara azterketak egitera baino ezin nintzen joan. Lehenengo lau urteak segidan egin nituela esan dizut, baina azkeneko kurtsoa hiru urtean atera nuen. Edo, hobeto esan, gainditutzat eman zidaten; ez nuen nik gainditu.

Mekanikari ikasten ari zinen, Durangoko Cultural futbol taldean ere jokatzeko ari zinen, eta Athleticcekoak joan zitzaizkizun bila. Ederto, ezta?

17 urte neuzkan, eta nire lehengusu bik, eta osaba bik ere bai, fundizioan lan egiten zuten, Tabiran [Durango]. Eta gurasoek esaten zidaten hantxe neukala beharra, lanpostu segurua, eta hara joan behar nintzela. Nik, ezetz. 17 urte neuzkan, Culturalen ari nintzen jokatzeko, dirurik ez nuen irabazten, baina futboleko jokatu nahi nuen.

Gurasoek, ni fundizioan hasteko; nik, ezetz, futboleko jokatu nahi nuela. Hori 17 urterekin. Gero, 18 urte bete nitue-nean, Bilbao Athletic bila etorri zitzaidan, eta futbolera! Baina lagun baten aita nire gurasoak konbentzitzera, eta niri laguntzera, etorri zen etxera. Gurasoak konformatu ziren arte! Aita bizkorrako konformatu zen ama baino.

Eta ibili zenituen talde bat eta bestea, futbola zeure lana eginda. Esaterako, hainbat urte egin zenituen Sestaon.

Zortzi urte. Hasieran, kontratu txikiak egiten zizkiguten, ez genuen hainbeste diru irabazten, baina gure artean-eta beti esaten genuen tailerrera joaten zenak guk baino bastante gutxiago irabazten zuela. Oraingo dirurik ez zen orduko denboran, baina pisu bat erosten hasi zintezkeen, behintzat. Orain, berriz, futboleko hasten den gazteak lehenengo gauza, autoa erosten du. Egia esanda, 19 urteko gazteak ez daki zer egin hainbeste dirurekin!



**Zaldibarko Zabortegia
jausteko arriskua zegoen eta,
hala ere, kamioiak zaborra
bota eta bota, behin eta berriz.
Lar mugitzen gaitu diruak”**

21 urte nitue-nean, Logroñés talde-dera joan nintzen. Bi edo hiru lagun bizi ginen elkarrekin, pisu berean. Haietako bat, zapatu arratsaldetan entrenatzaile ikastaroak egiten ari zen, eta niri ere ikasteko esaten zidan. Nik, ezetz: “Astean arratsalde bat libre, eta entrenatzaile ikasten hasi? Ezta pentsatu ere!”. Eta hura ikastera, eta ni etxean. Sestaon egondako azkeneko urtean hasi nintzen entrenatzaile ikasten.

Oraingo egunean, neska eta mutil, futbolari gura dute izan batzuek eta besteek.

Eta berdin gura dute euren gurasoek. Baina, esate baterako, Lezamara joaten diren neska-mutilen %2 edo gutxiago heltzen dira lehen mailara! Oso gutxi! Euren gurasoek, ostera, pentsatzen dute goiko mailara helduko direla. Gazteak futboleko jokatu nahi du, gurasoek nahi dute beren umea lehen taldera heltzea, ez dute ikusten beren semea edo alaba baino. Normala ere bada, baina puntu batera arte bakarrik. Eskerrak, guraso guztiak ez diren berdinak.



Batean, futbolari modura ari zara hitz egiten; bestean, entrenatzailea ari da. Sestaon erretiratu zinen...

Ez, zeharo. Sestaoko azkeneko urtean, mailaz jaitsi ginen, eta bota egin ninduten. Orduan, Lemoatik deitu zidaten, eta haraxe joan nintzen. Bigarren B mailan urte bat jokatu eta Amurriotik deitu zidaten. Baina Zaldibarretik Amurriora joatea ere ez zen oso aukera ona eta, orduan, Arratiako taldetik deitu zidaten, entrenatzaile izateko. Ordurako entrenatzaile-agiria neukan, eta probatu egin behar nuela pentsatu nuen. Futbole

jokatu baino ez nuen egin 18 urte nituenetik, profesionala izan nintzen, entrenatzaile probatu nuen Arratian, eta suertea izan nuen, bigarren urtean mailaz igo ginen eta. Eta Athleticek deitu zidan. Baina hura ere amaitu zen, gauza guztiak bezala.

Eta zer gertatzen da entrenatzaileari kontratua eteten diotenean, edo hura amaitzen denean?

Itxaron egin behar, hurrena nork edo nork deitu arte! Ni, hurrena, Lanzaroteraino joan nintzen. Zaldibarretik Lan-

zarotera! Lezaman entrenatzaile egondakoa nintzen, eta hori gauza handia da jende askorentzat. Lezama, gura dut esan. Lanzaroten urte bi oso onak izan ziren, ze lehenengo denboraldian hiru garren amaitu genuen, eta bigarreanean, oster, lehen. Eta, orduan, Eibar etorri zitzaidan bila, bigarren mailan zegoen garaian, eta hantxe hasi nintzen entrenatzaile.

Eibar taldeko entrenatzaile zinen Zaldibarreko zabortegia mendian behera amildu zenean...

Bai. Realaren kontra jokatu behar genuen, eta partidua suspenditu zuten. Pandemia baino astebete arinago, pentsatzen dut. Txarrena da zabortegian langile bi hil zirela. Zabortegia jausteko arriskua zegoen eta, hala ere, kamioiak gora eta behera ibili ziren beti, zaborra bota eta bota, behin eta berriz. Lar mugitzen gaitu diruak. Diruak mugitzen du mundua, eta ez bakarrik futbolariak!

Pandemia aipatu duzu. Zabortegia jausi, handik egunetara pandemia. Mundua geratu zen, futbola ez...

Ez, futbola ez. Halakoa da futbola! Politikak baino indar handiagoa dauka! Futbole

Ez dakit beste inon pasatzen den: zenbait partida galdu, eta kale gorrian da langilea: entrenatzailea, alegia.

Taldea txarto doanean, presidenteak jokalaria jakin batzuekin berba egiten du; kapitaineekin-eta. Baina kirol zuzendaria ere hor dago, eta zuzendari horrek eta entrenatzaileak ikuspuntu ezberdinak baldin badituzte, akabo! Hala ere, presidenteak agintzen du, eta berak esaten duena egiten da: entrenatzailea bota, ez bota, edo noiz arte itxaron.

Behin baino gehiagotan bota zaituzte talde batetik eta, era berean, behin baino gehiagotan hartu behar izan diozu erreleboa lankideren bati.

Toki askotara, emaitzak txarto doazelako heldu naiz entrenatzera. Osasuna, Alaves, Sevilla, Olympiakos... Nire kasuan, horrela heldu nintzen talde horietara. Hiru kasutan ondo atera zen gauza; batean, txarto: Alavesen. Lehenengo entrenamendua ikusi orduko igartzen ahal diozu taldeari: bat eginda dagoen, ez dagoen; gauzak ondo aterako diren, helburua lortzea asko kostako den. Horretarako, atezaina, goleatzailea eta halako



jokalaria batzuk ondo dau-
dela ikusi behar dituzu.

Hala ez bada, kontuz,
ez da samurra izan-
go: gogorra, seguru.

Esperientziak
gura beste
dituzu, eta
utzidazu pare
bat aukeratzen...

Esate baterako,
2023ko udaberrian
Sevillara heldu zinen,
taldea sailkapenaren
zuloan-edo zegoela. Handik
hilabete batzuetara, mailari eutsi
zion taldeak eta, are gehiago, kopa
bat irabazi zuen.

Ez zen kopa bat izan, Europako titulu
bat baino: Europa League. Nik taldea

“

**Lehenengo
entrenamendua ikusi
orduho igartzen ahal diozu
taldeari: bat eginda dagoen,
ez dagoen; gauzak ondo
aterako diren, helburua
lortzea asko kostako
den”**

hartu nuenean zuloan zegoen,
baina bertoko jokalaria
oso onak izan ziren. Hala
ere, nekatuta zeuden
aurreko urtetik. Nik
segidan ikusi nuen lan
egiteko prest zeudela.
Lau hilabete izan zi-
ren, udaberritik uda-
ra arte. Eta zuk esan
duzuna, zulotik atera
ginen, eta European titu-
lua irabazi!

**Alegia, ez dela balentria erraz
ulertzen. Are gaitzago da ulertzen,
ondoko denboraldia hasi, eta laster
kale gorrian zu!**

Zortzi-hamar partida iraun nuen. Gero,
kalera bota ninduten. Futbolean halaxe
dira gauzak, pazientziarik ez dago.

**Handik hilabete batzuetara,
berriz, Grezian zinen, bertoko
talde handienetako bat
entrenatzen: Olympiakos!**

Denboraldia hasi eta hil bira bota nin-
duten Sevillatik, eta urritik urtarrilera
arte ez nuen batere deirik jaso. Eta, or-
duan, Olympiakosen deia. Lehen bider
irten nintzen hemendik kanpora. Eta
han ere, Europako titulua irabazi ge-
nuen, Conference League. Iaz, liga eta
kopa irabazi genituen. Aurten ere ondo
hasi gara, baina betikoa: urte baterako
kontratua eduki arren, inoiz ez dakizu
kontratu hori beteko den ala ez.

**Noiz amaitzen da entrenatzaile
baten ibilbidea?**

Nire kasuan, oraindano ez, behintzat!
Entrenatzen hasi nintzenean, “55 urte
arte eta kito!”, esaten nuen. Baina mun-
du honetan ez dakizu lau hilabete
entrenatu gabe egoten. Badituzu 70
urtetik gora dituzten entrenatzaileak!
Nik 64 urte dauzkat! Egia esan, ez dakit
noiz arte ibiliko naizen taldeak entre-
natzen.

**Mekanikari ikasi zenuen...
Iruditzen zait futbol
entrenatzaileak baino gehiago
behar ditugula gaur egun
mekanikariak...**

Kar, kar! Mekanikari beharrik ez dut
inoiz egin, praktikak baino ez, 17 urte
nituenean. Zaldibarko tailer batean ibi-
li nintzen, abuztu batean, eta orduan
ere Culturalen aurrendenboraldia egiten
hasi baino lehen. Hala ere, arrazoi duzu,
mekanikariak behar dira, eta elektri-
zistak, iturginak, arotzak... Baina zelan
izango ditugu halako beharginak, denak
unibertsitatera badoaz? Denak uniber-
sitatera... hori ere ez da lar ona. Beste-
lako beharginak ere behar ditugu. ●





Álvaro García Ortiz, filtrazioak eta datu “erreserbatuak”



JESÚS RODRÍGUEZ
DIRECTA-KO KAZETARIA

Azaroaren 20an, hainbat kazetari-ri filtratu zitzairen Álvaro García Ortiz Espainiako Estatuko Fiskal Nagusi ohiaren aurkako epaia zigortzailea zela. Auzitegi Goreneko iturriek azaldu zuten, primiziaren argitalpena hedabideetan aurerratzeko, prentsa oharra eguerdi hartan zabaldu zen. Ez dut gogorarazi behar Auzitegi Goreneko zazpi magistratuko areto bateko deliberazioak izaera erreserbatua duela eta, beraz, filtrazio hura ere ikertu egin beharko litzatekeela, ezta?

Gorenaren oharra honela dio: “Datu erreserbatuak ezagutaraztearen delitu baten egile gisa, hamabi hilabeteko zigorrera kondenatzen du, egunero hoge euroko isuna ordaintzera, eta Estatuko Fiskal Nagusiaren kargurako bi urteko inhabilitazio berezia du”. Ez da *sekretuak ezagutarazteaz* hitz egiten, eta ez du kartzela zigorririk, akusazio partikularrek eskatu bezala. Epaia erredaktatzeko esperoan, itxura guztien arabera, azkenean egotzi dizkioten gertaerak ez dute zerikusirik Alberto González Amadorren –Isabel Díaz Ayusoren bikotekidea– abokatuak fiskaltzari bidalitako mezu elektronikoen filtrazioarekin, baizik eta Madrilgo Probintzia Fiskaltzatik bidalitako prentsa oharrekin. Inhabilitazioa, prentsa ohar batean datu “erreserbatuak” ezagutarazteagatik.

Eta galdera da: datu “erreserbatuak” babesteko zorroztasun hori beti aplikatzen da? Erantzuna argia eta irmoa da: ez. Adibiderik inkongruenteena Auzitegi Go-

Azkenean egotzi dizkioten gertaerak ez dute zerikusirik Alberto González Amadorren abokatuak fiskaltzari bidalitako mezu elektronikoen filtrazioarekin

renaren prentsa oharren hemerrotekan topatu dezakegu. Manuel Marchena Auzitegi Goreneko Bigarren Aretoko presidente zen garaian, eta Pablo Larena epailea Kataluniako independentismoaren buruzagi eta politikariak jazartzen zituen instrukto-reetako bat zen garaian, Espainiako Auzitegi Gorenak maiz igortzen zituen prentsa oharra, eta mezuetan hizketakideak anonimizatu gabe eranstzen zituen. Marchenaren eta Llarenaren ohitura bat zen Carles Puigdemont, Antoni Comín, Lluís Puig edo Clara Ponsatíren izen-abizenak jaiotze-datarekin zabaltzea, eta ondoren bakoitzaren aitaren eta amaren izenak azaltzea, NANAren datu-basearen *copy-paste*-a balitz bezala. Hasiera batean garrantzirik gabeko gauza txikia irudi dezake, baina kontua da edozein auzipeturen senideen izenak datu “erreserbatuak” direla, eta ezin direla

zabaldu ez prentsa oharretan, ez Espainiako botere judizialaren webgune ofizialera eskegitako dokumentuetan. Kualitatiboki “erreserbatuagoak” dira, Álvaro García Ortizek defendatu duen prentsa oharrean agertzen diren mezu elektronikoen bati buruzko erreferentzia orokorrak baino.

Adibide hori jarri dut, erraz egiazta daithekeelako poderjudicial.es webgunera sartuta, oraindik ere sarbide publikokoak baitira “erreserbatutako” datuak. Amaigabea litzateke antzeko ustezko delitu-jarduerekin baldintzatutako prozesu judizialen zerrenda. Ikertutako pertsonen senideen izenak, helbide pertsonalak, osasun datuak edo erlijio sinesmenak argitaratzea praktika sistematikoa da, ia inoiz ikertzen ez dena. Bereziki adierazgarria da Badalona 3. instrukzio aretoko epaileak erabili zuen argudioa kereila bat baztertzeko, Dolors Sabater (CUP) zinegotziak Xavier García Albiol (PP) alkatearen aurka aurkeztutakoa, kalean hil zen etxegabe baten osasun datuak eman zituelako. Epailearen arabera, Albiolk “informazioa emateko eskubidea” zuen, udalbatzan planteatutako galderak argitzeko. Kasu hartan ez zuen inhabilitatu.

Eta azken gogoeta bat. Komunikabide batean argitaratzen diren datu “erreserbatuen” filtrazio bakoitzeko Guardia Zibilararen Unitate Zentral Operatiboak haien bulegoei eraso egingo balie eta mugikorrak konfiskatuko balitu, agian *benemerita* komunikatzeko egoitzarik edo gailurik gabe geldituko litzateke. ●

Zoririk ez



KATIXA DOLHARE-
ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Azken urteetan, jendartean sumatzen da isuri berezi bat gure iraganara eta, ondorioz, gure historia hobeki ezagutzeko. Begira zonbat fikzio historiko atera den berriki, gure iragan hurbil edo urrunagokoa kontatzeko. Begira azken pastoralaren gaia, *Ürrats kolektiboak*. Begira iaz Sarako Biltzarrak antolatu zuen liburuzainendako egun profesionalaren gaia, Ipar Euskal Herriko historiografiaz. Begira zonbat film ateratzen den, aitzineko garaia ulertu nahian. Begira, bereziki, zer zoramen sortu den Mattin Aiestaran arkeologoren taldeko Leire Malkorrek 2021ean aurkitu Irulegiko eskuaren inguruan: zonbat mintzaldi jendetsu, erreportaje, kantu eta ipuin, zonbat ekoizpen eratorri, munduari adierazteko euskaldunen arbasoek jadanik (proto)euskaraz hitz egiten zutela. Eta zoin hitzen bidez jakin ahal izan dugu hori? Eskuan idatzia den *sorioneku* hitzaren bidez. *Sorioneku*, edo, zergatik ez, *zorion leku*? Zori onean sinesten ote zuten gure aurrekoek? Euskaldunak ez baiken hasieratik populu madarikatu bat, Harkaitz Cano eta Ximun Fuchs-ek Sofokles eta Mouawad -en ildotik idatzi *Nor naizen baneki* tragedia zirraragarriak erakusten duen bezala?

Ezen, gure “eleberri nazionala” da herri madarikatu bat garena, galtzaileen herria, osoki uros izan ezin garen herria. “Eleberri nazionala” da XIX. mendean sortutako kontzeptu bat: herri batek bere iraganaz egiten duen kontaketa mitifikatua. Estatua duten nazioetan, erakunde ofizialek dute bideratzen. Adibidez, Frantziakoa oinarritua da hiru mitotan: unibertsalismoa (Frantziak dauzkan balioek balio dukete, berez, unibertso osorako), salbuespenismoa (Frantzia beste herriak baino hobea eta handiagoa dateke), kolo-

teke bere balioak bortxaz hedatzea mundu guzian). Hori esplikatzen du O. Le Cour Grandmaison politologoak. Gure kasuan, jendarteak berak du sortu bere “eleberria”: bere burua funtsezko biktimatzat hartuz, kontatzen du nola erresistentzia herrikoia irauten.

Bizkitartean, historialariek eta hizkuntzalariek azaltzen digute errealitatea kontaketa horiek baino anitzez konplexuagoa dela: berriki atera den *Iraganaren lekuko*. *Euskal Herriaren historia* liburuan, X. Irujo, U. Belaustegi eta I. Lopez de Luzuriagak erakusten dute “historia ez d[el]a lineala, gatatzak, egokitzapen eta paradoxa askoren bilduma baizik”. Eta, beren gisara, hizkuntzalariek dioskute, egun, zalantza handiak dituztela Irulegiko eskuan idatzitakoa baskoia eta euskararekin lotzeko. J. Manterolak eta C. Mounolek, bereziki, demostratu dute ez dela frogatzen ahal *sorioneku* hitzak zerikusirik daukala oraingo *zorion* hitzarekin.

Egia zientifikoagatik behar ote lirateke, orduan, kontaketa nazionalak eta mitoak gutxietsi eta baztertu, ipuin ezdeusak balira bezala? Preseski, ez. Bakoitzak badu bere garrantzia. Zientziarik ez bagenu, eta geure artean ez balitz zientzialari zorrotzik, itsukeriarat kondenatuak ginatke: historia berezirik gabe geldituko ginatke, eta ez genuke etorkizun duinik eraikitzen ahal. Baina “eleberri nazionalik” edo mitorik ez bagenu, ari-



DOM CAMPISTRON

marik eta mundu ikuskera berezirik gabe ginatke, erregairik gabe panan ginatke, geroari begira.

Gogoeta hori piztu zidan *Nor naizen baneki* Axut! eta Artedrama konpainien sorkuntzak: arkeologia eta psikoanalisi beharrezkoak zaizkigu, baina istorioak, mitoak eta antzerkiak, literatura, beraz, berdinberdin, ez bada gehiago. Gure almadiatik ariko gara, beste aukerarik izan ezinean, oxala ez Géricault-enean bezala bukatzeko, baina antzerkiko pertsonaiak bezala, elkartasunez, iluntasunetik argirantz ibiltzen, Lurdes Iriondok eta bere lagunek hori irakatsi baitigute: hamahirurik ez. Ez, zori akabatzailek ez dago. ●



SUKAR HORIA

Lau erroberak eta inperioa

Zein objektu datorkizu burura inperialismoa aipatzen badugu? Seguruenik gehienoi armak etorriko zaizkigu burura, gerra eta inperioaren arteko lotura zuzen-zuzena baita.

Alta, metropoliaren kaleetan ere inperioaren trazak ikusgai egoten dira. Erroma, Londres edota Paris moduko hirien monumentalitatea ulertezina da eurek aberastasunez hornitzen zituzten kolonien rola ulertu gabe. Horren adierazle garbienak dira espoliazio kolonialak ondo hornituriko British Museum edo Louvre museoa.

Baina objektu arruntagoetara ere ailegatzen da inperialismoaren itzala. Gure kaleak inbaditu dituen autoaren hegemonia, adibidez, ezin da ulertu dinamika inperialistei so egin gabe, Bilboko portura urtero 360 petrolio-ontzi etortzea ez baita fenomeno naturala.

Berez, 1945etik aurrerako geopolitika ulertzeko giltza da autoa eta bere elikadura katea ulertzea. AEBek Marshall planarekin Mendebaldeko Europa bere influentzia esparruan mantentzea lortu zuten. Plan horren parte garrantzitsu bat ikatzaren rola murriztea zen, petrolioarekin ordezkatzuta, horrela mugimendu komunistak meatzaritza eremuetan zuen boterea indargabetzeko. Baina arazo bat zegoen, Europan ez zegoen nahikoa petrolio. Orduan AEBen proiektu inperialis-

taren giltza bihurtu zen Ekialde Hurbila, bertatik hornituko baitzen europar eskaria. Nazioarteko marko horri begiratu behar diogu, 60ko hamarkadatik aurrera Europan autoak bizi izan duen gorakada ulertzeko.

Noski, Ekialde Hurbilean hainbat izan ziren harreman desorekatu horren aurka altxatu zirenak, eta protesta horiek isilarazteko hamaika dira potentzia inperialistek sustaturiko estatu kolpe zein gerrak. Esate baterako, oso esanguratsua da 1953an, Iranek petrolio nazionalizatu eta bi urtera, AEBek eta Erresuma Batuk bertan eman zuten estatu kolpea.

Kotxe elektrikoaren agerpenak ere geopolitikan eragina izan du, eta Bolivian 2018an eman zen estatu kolpea ulertzeko, bertako litio erreserbei begiratu behar zaie, baterien produkzioarako berebizikoa baita mineral hori.

Ulertu behar dugu, beraz, gizarte moduan autoarekiko dugun dependentzia mantentzen dugun bitartean, proiektu inperialista bat beharko dela gure gizarte eredua mantentzeko. Hortaz, inperialismoaren aurka borrokatzeko, eskalada armamentistikoari aurre egiteaz gain, edo beste herriekiko gure elkartasuna erakustez gain, garrantzitsua da kotxearen zentralitatearen aurka borrokatzea ere.

Desarma dezagun lau erroberen inperioa! ●

Amorruaren baliagarritasunaz

CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Beti pentsatu izan dut ez dagoela haserretzea baino gauza alferrika-koagorik. Aste honetan, gainera, bi haserrealdi handi izan ditut, bi traizio txikiri lotuta, eta biak ere ahaztu nahian nabilen bitartean Maria Negroni-ren liburu bateko esaldia agertu zait, beti aurkitzen baitugu liburuetan bilatzen ari garen hori. *Amorruak bizitzatik salbatzen nau*. Azalpena ere ematen du liburutik kanpo bada ere. Idazle argentinarrek dio geure burua eraikitzen ari garen bitartean defentsa-estrategiak erabiltzen ditugula. Haurrek azkar ikasten dute min ematen duten gauzetatik defendatzen:

ez ikusiarena egiten dute, ez dituzte entzun nahi edo krudelkeriaz jokatzeko dute. Haserrea, babeserako tresna bat. Kontrakoa dirudien arren, sufritzera bultzatzen gaituzten gauzetatik babesten gaitu. Kolerak salbatzen gaitu bizitzaren minetik. Bakarka ari naiz irakurtzen, ile-apaindegiko berogailuan burua sartuta, zarata erabatekoan, esaldi horrekin topo egin dudanean. Isilik geratu naiz horretan pentsatzen lehorgailuaren txirrinak jo duen arte. Liburua ahaztuta utzi dut aldizkari meta baten gainean. Liliana Porter-en irudi bat du azalean: *Her with it*. Irudiarekin joan naiz etxerantz. ●

Galderak



INMA ERREA CLEIX
IDAZLEA ETA
ITZULTZAILEA

Zer egiten duzue supermerkatu batean sartzean elikagai-bankukoek hartzen zaituztenean irribarre onbera musuan eta poltsa eskuan? Poltsa hartzen diezue irritsu edo serio? Aitzina egiten duzue serio, poltsei eta barre murritzei ihes eginik? Edo irribarrea itzultzen diezue nola edo hala poltsaren konpromisoa saihestuta? Zer sentitzen duzue egiten duzuen egiten duzuela eginda?

Zer botoi sakatzen duzue erosketa txartelarekin ordaindu behar eta makinan proposatzen dizuenean xede oneko proiektu edo elkarte baterako zuen ekar-pentxo egiteko? Botoi gorria ala botoi berdea (errealitatez aldatzeko aukerarik ez, pilula gorria hartuta urdinaren orde-...)? Eta nola sentitzen zarete hautu bat edo bestea egitean?

Kasu egiten diozue kalean gobernuz kanpoko erakunde bateko norbaitek zuek geldiarazten lortu eta galdatzen dizuenean bazkidetzeko (edo diru-ekarpen bat egiteko, edo testamentuan zerbait uzteko erakundearen alde...)? Ongi iruditzen zaizkizue, zilegi, halako eskaerak, ala arbuiagarri jotzen dituzue? Inoiz pentsatu

Ez da harrigarria alde batetik gerrak egiteko baliabideak zergen bidez ordaintzea eta bestetik dohainen bidea jorratzea kalte humanitarioen zuzeneratzeko?

duzue zer gisa ari diren eskaera egiten duten gazte horiek? Boluntario? Langile? Eta, langile izatekotan, zenbat kobratzen duten herritarren arrantzan aritzeagatik? Adu duzue inoiz gatazkaren bat izan ote den kontu horietaz lan-auzitegietan?

Zerekin amorratzen zarete gehiago? Zergak Ogasunari ordaintzeko bete-

beharrarekin ala munduko bazterretan etengabea piztutako gerren ondorio krudelak (desplazatuak edo haur gose-tiak kasu) leuntzeko erakunde humanitarioen *obolo*-eskariekin?

Jakin izan duzue inoiz zertan diren erakunde humanitario horien kontabilitateko egoera-orriak edota aurrekontuak? Jakin nahi izanen zenukete nondik datozkien funtsak (zeinek zenbat) eta nora doazen (zenbat zertara)? Ez da harrigarria alde batetik gerrak egiteko baliabideak (gizakiak eta materialak) zergen bidez ordaintzea eta bestetik dohainen bidea jorratzea gerra horiek egindako kalte humanitarioen zuzeneratzeko?

Aukera izan duzue inoiz argi eta xehe-xehe ikusteko nora, zer gastu-klasetara, bideratzen diren zergak? Nondik datozten argixeago-edo baitago... Adibidez, osasun-gastuetan zenbat dagokie farmakoei eta zenbat bestelakoei (langileriari, azpiegituri, zaintza-jarduerei...)? Ez dizue horrek jakin-minik pizten?

Inoiz pentsatu duzue halakoetan? Deserosoa egin zaizue galdetegia? Desegokia? Edo itaun gehiago piztu ditu zuengan? ●



**Legazpin euskaraz
bizi, sentitu, amestu**



Gertukoa.
Kalitatezkoa.
Konfiantzazkoa.



Hemengoa
izatea ona da



ZENBAT GARAK 30 URTE

Arnasgune bat, Bilboko basamortuan

Done Bikendi kaleko bigarrena oasi bat da Bilboren bihotzean; oasi bat basamortuan. Trajedunenjoan etorrien, autoen zalapartaren eta klaxonen erdian dago, Asterix eta Obelixen gisan, kanpoko ezlekuari kontra egin nahian. Gaztelaniaren eta *status quo*aren inperioaren erdian, eraikinak eusten dio euskarari, euskal kulturari eta komunitatea egiteari; ez, ordea, lan nekezik barik. Euskararen aurkako oldarraldi betean, “ozeanoan tanta

bat” direla diote Zenbat Garako kideek, eta euskara salbatu nahi bada erakundeek “euskara babesteko politika serioak” martxan jartzea derrigorrezkoa dela; egun ez dute horrelakorik egiten, kideek salatu dutenez. 1995eko abenduaren 15etik hona, elkarteak euskara Bilbora eta Bilbo euskarara ekartzeko lanak egin ditu, nazio ikuspegia txertatuta; eta hirugarren hamarkadan ere horrela jarraitzeko asmoa du.

 MARIA ORTEGA ZUBIATE

1 995ean Bilboko euskaltzale batzuek *bilbainada* bat egin zuten. Hiria arrotza zen euskararentzako –aditza orainaldian jotzen jarraitzen dute Zenbat Garako kideek–, eta euskaldunek apenas zuten tokirik euskara eta euskaraz bizitzeko. *Alkar jo* eta *alkar hil* egin behar zuen belaunaldia zen, baina Orioko profetaren alarma hitzei kasu egin, eta batzea eta eragitea erabaki zuten. Pare bat hamarkada aurretik hasia zen beren jarduna, baina guztiak batuko zituen leku fisiko bat izatearen garrantziaz jakitun ziren. “Areto bat zabaldu nahi genuen, duina; euskal kulturarentzako aterpe izango zena, ikasleekin eta euskaldunekin egon ahal izateko, eta Bilboko erdigunean egongo zena”, dio Eider Del Canto Zenbat Garako kideak. Horrela, bada, Bilboko Abando auzora jo zuten, erdigune bete-betere, bertako pa-

rrokiarekin epe luzeko alokairu kontratua negoziatu zuten, eta horrela bihurtu ziren San Vicente zinema Bilboko Kafe Antzoki, eta alboko eraikina, parrokiari lotutako eskola izandakoa, Zenbat Gararen eraikin nagusi. Orain 30 urte.

Egun, Zenbat Gara hamaika ekimen eta elkartek osatzen dute. Zazpi pisuko eraikinean, labirintoan legez banatzen dira Kafe Antzokia, Bilbo Hiria Irratia, Kurkuluxeta gazteei begirako aisialdi eskaintzako taldea, Erroa argitaletxea eta Gazteola gazteen aisialdi taldea. Eta, zelan ez, Gabriel Aresti euskaltegia. Berau izan baitzen Zenbat Gararen ernamuina, lehen pausoa, 1995eko hori baino bi hamarkada lehenago. 1978an ireki zituen ateak Gabriel Aresti euskaltegiak, Bilboko Kale Nagusian. Izena ez du badaezpadakoa, ondo pentsatuta aukeratu zioten: “Gabriel Aresti ez zen euskalduna jaio-

tzaz, gerora euskaldundu zen; eta bere obra guztia euskaraz egitea erabaki zuen. Euskara ikasi eta herriari eskaini zion”, dio Jabi Zabala Zenbat Garako kideak. Eta horrek laburtzen du euskaltegioko sortzaileen filosofia.

Orduan ere, Bilbo erdigunea izan zuten helburu eta jomuga. Euskara arrotza den eremuan egotea baitzuten helburu orduan ere, “boterearen pentsamolde-tik bazterrekoa” den gauza bat, euskara, erdigunean jartzea. Hori lorpena da Zenbat Garako kideen ustetan, jakin baitakite beste eremu batzuetan errazagoa litza-tekeela. “Beti dago dikotomia bat. Errazagoa da gusturago zauden leku baten egotea, demagun Zazpikaleetan; baina era berean ghetto bihurtzen da, hori bul-tzatzen duzu. Euskara esparru guztietara zabaldu nahi badugu, fisikoki ere horrela egin behar dugu”, dio Zabalak.



PELO MAUDO HERRERO/ARGIA CC-BY-SA

Ezker-eskuin, Eider Del Canto, Eider Cortezo eta Jabi Zabala Zenbat Garako kideak, elkarteko eraikinaren kanpoan, ARGIArekin elkarriketan.

Horrela, bada, 1978an abiatu zuten bilbotarrak euskalduntzeko prozesua, handik hamarkada batera kooperatiba bihurtu ziren, eta proto Zenbat Gara moduko bat bilakatu ziren. Euskalduntzea zen bere jardun osoa, baina hasiak ziren nabaritzen euskalduntzearekin soilik ez zela nahikoa. “Gure jarduna soziolinguistikaz hornitzen hasi ginenean, hiru elementu ikusi genituen: motibazioa, ikasketa eta erabilera. Eta hiruek elikatzen dute elkar”, azaldu du Zabalak. Izan ere, konturatu ziren ezagutzearekin ez zela amaitzen prozesua. “Orduan euskara bizitzeko aukerarik ez zegoen Bilbon, euskaltegitik atera eta bost urtean euskalduntze prozesua haizea hartzera joaten zen, ikasleak berriro erdalduntzen ziren-eta”, dio Eider Del Canto kideak. Egoera aztertu zuten, eta orduan eman

zuten pausoa Zenbat Gara ofizialki sortzeko, euskarak jendea soilik ez, ingurua ere behar duela iritzita.

EUSKARAK BEHAR DU AISIA

Ezagutza hutsaren hustasunak eraman zituen, hala, Zenbat Garako kideak Bilbon euskararen unibertso oso bat diseinatzera. Lehenik, erabileran jarri zuten fokua, ikasleen praktikarako aukeretan, alegia. Eta, horrela, Bakaikuko Etxea sortu zuten, Nafarroan, euskara “Euskal Herriko muinean” praktikatu zezaten. 1990ean sortu zuen etxea Zenbat Garak “euskara eta euskal kultura bertatik bertara ezagutzeko” aukera eskaintzeko asmoz. Egonaldiak eta barnetegiak egiten dituzte bertan, aisialdia euskaraz eskainita.

Handik lau urtera, 1994an, praktikatu soilik ez, euskara gozatu ere egin behar zela iritzi zioten kideek, eta “kalean eta parrandan ere parte hartu” behar zutela. Bilboko parrandaren eragile nagusia Aste Nagusia izaki, bertara zuzendu ziztuzten ahaleginak, bertan ere “eragin” nahi baitzuten. Horrela, 1994an Algara konpartsa sortu zuten. Eta horrekin ere izan zuten zentraltasunaren ideia. “Konpartsen esparrua Areatza da, baina Algara Abandoko estazio alboan dago, itsasadarretik beste aldean. Arrazoia politikoa da: ez gaitezen itxi hor, zabal dezagun euskara. Zenbat eta lurralde gehiago hartu, hobe”, dio Eider Cortezo Zenbat Garako kideak.

Beraz, 1990eko hamarkada erdialderako jada aldamiajeara eraikita zeukaten, eta aipatu *bilbainada*, Bilbo erdigunean



Ezker-eskuin, Eider Cortezo, Eider Del Canto eta Jabi Zabala Zenbat Garako kideak ARGIArekin elkarriketan.

euskaraz biziko zen kulturgune duin bat eratzearena, forma hartzen joan zen. Sortu zuten Bilboko Kafe Antzokia, 1995eko zutun, eta horrekin batera heldu zen Zenbat Gara osoa ere bertara: “Baina Kale Nagusia utzi barik, horrekin beti dugu lotura emozionala eta sinbolikoa”.

EUSKARAK BEHAR DU ERABILERA

Ordutik hona, erreferentziazko antzoki bihurtu da Bilbon Kafe Antzokia, euskal kulturaren abaro. Baina ez zuten helburu soil horrekin sortu, euskara praktikoa bulztatuko zuen eremu gisa ere ulertu izan

dute betidanik. “Antzokia sortu zenean ez zen leku bat euskal kulturari lekua emateko bakarrik. Lan egiteko toki bat zen eta da, euskaraz. Zerbitzarietatik hasita, sukaldariak, teknikariak eta denek euskaraz bizitzeko aukera izan zezaten pentsatutako proiektua da”, dio Del Cantok. Euskaraz behar egiteko aukera sortu nahi zuten, hori ere bazen lehen mailako helburua. “Bestela, ematen du bigarren toki batean uzten dugula, baina garrantzitsua da lanera etortzea eta euskaraz bizi ahal izatea”, gehitu du Del Cantok. Aitortzen du “erronka handia” dela, “gaitza” dela, baina elkarteko ehun langileek euskaraz lan egiten duela dio, eta hori “gauza handia” dela.

Elkartekideen egunerokotasuna euskalduntzera heldu dira, baina jakitun dira anomalia bat dela hiriaren errealitatean, Bilbon “ezinezkoa” dela euskaraz bizitzea. Elkarteko kideek diote euskaraz bizitzeko, hizkuntzak praktikoa izan behar duela, lanean eta egunerokotasunean erabiltzeko aukerak egon behar direla. Eta hori ez da gertatzen. “Ikasleei euskara irakasten diezu, baina euskarak balio bat izan behar du. Gizartean islatu behar da, ez bada islatzen edo oztopatzen badugu, alperrik da”, dio Cortezok.

Eztabaida horretan, ezinbestean, demografiaren bilakaera, alegia, atzerriarren gaia ateratzen da sarri. Eta errua



Algara Konpartsaren umeentzako emanaldia.



PELLO MAUDO HERRERO/ARGIA CC-BY-SA

atzeritarren etorrerari botatzearen aurka agertu dira elkartekideak. “Gero eta jende gehiago etortzen da kanpotik eta euskara haien zat arrotza da; hori erreallitatea da. Baina horien kontra jotzeak ez du zentzurik, egin behar duguna da geureganatu. Hemen errotzea nahi badugu, gainera, geurera ekarri behar ditugu, geure kulturara hurbildu”, dio Del Cantok. Eta horretarako euskarak balioa izan behar duela diote kideek. Bestela “zertarako ikasiko dut? galdera sortzen da”, dio Cortezok, hizkuntza “normal” bat beharrean, hizkuntza “ortopediko” bat ikastearen sentsazioa dutela, Zabalak. “Lan egiteko ez bada beharrezkoa,

euskara barik bizi bazaitezke, zertarako ikasi?”, Del Cantok.

Eta horretan eragiteko Zenbat Garak ez du behar beste indar. “Gu ez gara prometeistikoak, zentzu horretan ez gatoz mundua konpontzera, gu etorri gara gure ekarpena egitera. Baina gure ekarpena, azkenean, ozeano bateko tantatxo bat da, ona izanda ere. Bilbo transatlantiko bat da, eta bere norabide linguistikoa aldatzeko, gurea moduko proiektuak bider ehun behar ditugu”, dio Zabalak.

Eta aldaketa horrek, indar horrek, nondik etorri behar argi dute: erakundeetatik. Elkartearen iritzia azaldu du Del Cantok: “Politika publikoetatik mo-

tibazio lan handia egin behar da, eta hori erakundeek egin behar dute: lege babesa behar da”.

EUSKARAK BEHAR DITU ERAKUNDEAK

Baina ez dute horrelakorik jasotzen, hori salatu dute kideek; erakundeek bizkarra ematen diote euskarari, horretaz kexu dira, eta elkarteak abiatutako edozein ekitaldiri oztopoak jartzen dizkiete. “Bilbo hiri moderno, europar, aseptiko bihurtu nahi dute, eta euskarari ez zaio behar duen tokia ematen”, dio Del Cantok. Jarrera hori “konpromisorik ezaren”



ZENBAT GARAK UTZIA

Zenbat Garako kideak Bilbo Hiria irratiko uhinetan.

“Bilbo hiri moderno,
europar, aseptiko bihurtu
nahi dute, eta euskarari
ez zaio behar duen
tokia ematen”

Eider Del Canto

“Algara itsasadarretik
beste aldera dago. Arrazoa
politikoa da: ez gaitezen
itxi hor, zabal
dezagun euskara”

Eider Cortezo

“Lan egiteko ez
bada beharrezkoa,
euskara barik bizi
bazaitezke,
zertarako ikasi?”

Eider Del Canto

adierazle da, horrela uste du Zabalak: “Ez dago euskararekiko politika sendorik, ezta erabakirik euskara arlo guztietan bultzatzeko ere”.

Kideek salatu dute, beraz, erakundeek ez dutela euskara gai garrantzitsua gisa jorratzen, “gauza sinbolikoetara” mugatzen direla, pauso erabakigarriak eman barik. Honela dio Zabalak, euskararen erabilera praktikoari erreferentzia eginez: “Gauza sinbolikoetara bakarrik mugatzen dira, edo haurrekin soilik gauzak egitera; baina helduak? Ez dira euskaldundu behar? Helduen mundua: merkataritza, enpresa mundua... ez dira euskaldundu behar?”.

Ingurune “gero eta erdaldunago” batean, “erdalduntze makina” abiada bizi doala diote. “Esango nuke gero eta handiagoa dela erdalduntze makina. Komunikazioa, sare sozialak eta beste jo eta fuego dabilta horren alde”, dio Cortezok. Eta horren aurkako babesa eman beharrean, elkartekideak kexu dira erakundeek ere norabide horretan egiten dutela arraun. “Administrazioa eta epaitegiak urteetako lana egiten ari dira erdalduntze aldera, gaztelania gai-

lendu dadin, horretarako lanean ari dira. Batzuetan ematen du ezetz eta egoera berezkoa dela horrela, baina ez: hemen plan bat dago gaztelania gailentzeko”, dio Del Cantok.

Egoera horren adibide jarri dute, esaterako, Bilbo Hiria irratiak, Zenbat Garako kide denak, bizi duen egoera. 1997tik dago emisioan, baina 28 urte geroago, oraindik ez du lizentziarik. “Bilbon euskara hutsean aritzen den irrati bakarra da, baina alegala da, ez du lizentziarik. Eta ondorioz, irrati bati dagokion dirulaguntzarik ez du; laguntza horiek ematen dizkiete gaztelaniazko kateei, saio bat euskaraz egiteagatik. Zorua da kontua”, dio Cortezok.

Edozelan ere, Zenbat Garak diruz laguntzea ez, euren lanari oztoporik ez jartzea eskatzen die erakundeei. “Erakundeei ez diegu dirua hainbestetan eskatzen; eskatzen dieguna da oztopoa ez izatea, beraiek egiten ez dutena gu egiten ari garenez hein batean, gutxienez ez jartzea oztopoak”, dio Del Cantok. Aldarria, beraz, sinplea da: euskara izan dadila lehentasun eta ez anekdota; eta politikak serioak, ez hutsalak.

EUSKARAK BEHAR DU BILBO

Giro “arrotzean” sortu zuten Zenbat Gara, duela hiru hamarkadako –eta oraingo, diote kideek– Bilboko euskararen egoera bortitzak bultzatuta: hiriaren erdigunetik auzoetara zabaltzeko asmoz. Baina tokiko elkarte izateak ez ditu tokikotasunera kondenatzen, are, nazio mailako bokazioa dute: Bilbo euskararen mapan kokatzeko bokazioa. Izan ere, kontziente dira nazio mailan Bilbok ez duela zentralitate euskararen aferan, diote Donostia inguruan dagoela “euskalgintzaren zentroa”, baina Bilbora begira ere jarri nahi dute.

“Errealitate sozioekonomikoa hor dago, eta politikoa, eta Bilbo da Euskal Herriko hiririk handiena; hiri erradiatzailea da”, dio Zabalak. “Bilbon gertatzen denak, azken finean, Euskal Herri osoan du eragina”, gehitu du Del Cantok; eta defendatzen du horregatik dela interesgarria bertako euskalgintza indartzea, hartutako erabaki horietan euskarak bere lekua izan dezan. Horregatik, hiriak duen dimentsio eta pisuagatik, uste dute euskalgintzak izan behar duela bere lekutxo Bilbon, “komeni” zaiola;

*Mendexan ere
euskaraz bizi
nahi dugu!*





ZENBAT GARAK UTZIA

Zenbat Garako langileak.

“Ez dago euskararekiko politika sendorik, ezta erabakirik euskara arlo guztietan bultzatzeko ere”

Jabi Zabala

eta euskaldunei ere komeni zaiela euskalgintza eta euskal kulturgintza gehiago egotea Bilbon.

Eskatzen ari direna da Bilbori kasu egitea, ez bertan jartzea fokua: “Ez dugu nahi *bilbainada* bat egin”. Arnasgune izatetik urrun, Euskal Herriko eremurik populatuenetik begiratzen diote nazio osoari, eta kezka dute, ez soilik Bilboko egoeragatik. “Gu asko kezkatzen gaitu arnasguneak desagertzeak edo higitzeak. Kezkatzen gaitu Bilbok, baina kezkatzen gaitu baita Azpeitiak

ere; egoera orokorrak kezkatzen gaitu. Euskaldun guztion kezkak berak dira hemen, Iparraldean edo Nafarroan”, dio Zabalak.

Ari dira azpiegitura prestatzen Bilbok ere izan dezan bere leihoa euskalgintzarentzat, eta ari dira elkarlanean nazio mailako eragileekin. Horrela, bada, Bilbotik Euskal Herrira ari dira, gatazka eta kezka komunak aurkako arma komunak bila: horrela egin dituzte 30 urte, eta beste horrenbeste egingo dituzte, gutxienean. ●



Ikur honek euskara erabiltzeko aukera bermatzen dizu
Oiartzunen 90 establezimendutan



**OIARTZUNGO
UDALA**

BOGA BOGA ELKARTEA

Ondarroan badakite nola lortu zahartzaro feminista

Askatasuna, ahalduntzea, gozamena, laguntasuna... Hitz horiek askotan gaztetasunari lotuta imajinatzen ditugu, baina, kasu honetan, 70 urteren bueltako hiru emakumek zerrendatu dituzte, Ondarroako (Bizkaia) Boga Boga elkarte bizi dutenari buruz berbetan. Elisabet Santiso Arrizabalaga (Ondarroa, 1954), Maria Dolores Gojenola Urkiaga (Ondarroa, 1955) eta Yolanda Burgoa Zenarruzabeitia (Ondarroa, 1956) dira emakumeok; bi abizenak ezartzeko eskatu diote kazetariari, elkartearen egiten dituzten gogoetetatik tiraka, besteak beste ohartu baitira bestela amaren arrastoa desagerrarazten dela. "Proaktiboa, autoestimua, enpatia, enpoderatzea... Horrek berbok hementxe ikasi eta erabiltzen ditugu", azaldu digute Etxelilan egindako hitzorduan, asteroko saioen fruituak erakusteko.



"Barikuro Boga Bogakoekin ego-
tean sentitzen dut nire tokia
topatu dudala, ondo sentitzen
naizen espazioa, elkar zaintzen garena.
Badakit nahi dudana esan dezakedala,
ez daukagulako barrerarik gure artean,
eta hori inportantea da". Burgoak azpi-
marratu du ez duela preziorik horrelako
espazio erosoak aurkitzeak zahartzarora
heldutakoan. Adineko emakumeek osa-
tzen dute taldea, eta hamabost bat lagun
elkartzen dira astero Etxelilan, Onda-
rroako Udalak irekitako emakumeen
etxean. Baina sare hori harago ere zabal-
du dute: irteerak, bidaiak, zine forumak,
pintxo-poteoak, ikastaroak, eztabaidak,
jaiak... Gojenolak taldera batzera ani-
matzen ditu andreak: "Inguruko denei
esaten diet: 'Ez dakizu ze aberasgarria
den gu denok elkartzeara hemen'. Ez da
bakarrik egun batekoa, ekintza gehiago
egiten ditugu, eta parte hartzailea da".

2025ean 30 urte bete ditu elkarteak,
eta egindako "ahalduntze kolektibo-
aren" balioa jendarteratzeko dokumental
bat estreinatu dute azaroan: *Zahartza-
ro feministarantz, Boga-Boga*. Honelaxe
diote protagonistek: "Erakutsi digute ez
dela isildu behar, berba egin behar dela".
Askotariko hitzaldiak jasotzen dituzte
emakumeok, eta dokumentalean azaltzen
denez, entzule izatetik parte hartzaile izat-
era eta ardurak hartzera igaro dira, bai
elkartean bai handik kanpo. Taldearen
dinamizazioaz edota ikastaroak emat-
eaz arduratu izan dira Mijo Lizarzaburu
(Ondarroa, 1998) eta Udane Barinagarre-
menteria Laka (Markina-Xemein, 1996),
eta eurek zuzendu dute dokumentala.
Boga Boga ezagututakoan elkartearekin
maitemindu zirela onartu dute, eta andre
horiei eginiko elkarrizketak grabatuta,
zahartzaroren irudi aktiboa, kritikoa
eta kolektiboa transmititu nahi izan dute.

Lizarzaburuk dio dokumentala hain-
bat helbururi erantzuteko egin dutela,
baina, batik bat, herriari helarazteko el-
karteak duen garrantzia. Lehen helburua
izan da artxibo ariketa egitea, jasota gera
dadin Boga Bogaren funtsa. Bigarrena,
Ondarroan legitimotasuna lortzea, izan
ere, azaldu du elkarte hau ez dela ikusten
gainerako talde feministen parean, baizik
eta "folklore" moduan: "Andre nagusiak
infantilizatzen direnez, Boga Boga ere in-
fantilizatuta geratzen da herrian, eta do-
kumentalaren bidez erakutsi nahi dugu
andre hauek ere politika eta feminismoa
egiten ari direla". Hirugarren xedea izan
da aitortza publikoa egitea, kontuan izan-
da gaur egun ohikoa dela pertsona bat

noizbait foku azpian edo ekintza publiko
batean agertzea (eskolako antzerkian,
dantza emanaldietan...), baina ez da hala
izan dokumentaleko protagonista guztien
kasuan. "Emakume hauetako batzuek 14
urterekin eskola laga behar izan zuten,
eta bizi guztia beharrean pasa. Irizten zi-
tzaigun aitzakia ona zela egindako lanari
omenaldi publiko bat egiteko".

"Saiakera egin dugu beste
gorputz batzuk ekartzeko
feminismoaren subjektura;
kalean daude eta lan handia
egiten dute, baina ez daude
gure buruan normalean"

**Udane Barinagarrementeria,
dokumentaleko zuzendarikidea**

Eta laugarren helburu gisa izan dute fe-
minismoaren subjektuari buruzko gogoeta
elikatzea: "Zer irudikatzen dugu feminis-
moaren subjektua imajinatzen dugunean?
Zer gorputz etortzen zaigu burura", galde-
gin du Barinagarrementeria. "Boga Boga
moduko elkarte baten lanak erakusten du
subjektu hori askoz zabalagoa dela. Do-
kumentalarekin saiakera egin dugu beste
gorputz batzuk ekartzeko feminismoaren
subjektura; kalean daude eta lan handia
egiten dute, baina ez daude gure buruan
normalean". Santiso, Gojenola eta Burgoa
adi entzuten ari dira bi zuzendarien azal-
penak, eta duela urte batzuk ezezagun
zitzaizkien hitz "akademikoagoak" ere
etxeokoago egiten zaizkie orain, hamaika
saitan landu baitituzte kontzeptuok, bizi-
tzako praktikatik teoriara eramanda, hain
justu Lizarzaburuk eta Barinagarmente-
riak egin dutenaren kontrako noranzkoan:
Boga Bogako kideekin ikasi baitute teoria
feminista eta politikoak lurrera ekartzen,
materializatzen. "Elkarrizketa interesga-
rri asko izan ditugu elkarrekin. Adibidez,
zaintzaren greba antolatzeke unean, mu-
gimendu feministako hausnarketak hona
nola ekarri asko landu nuen. Gauzak izen-
datzeko eta esplikatzeke beste modu bat
ikasi dut, eta horrek eraman nau ni beste
toki batean kokatzera", jakitun da Barina-
garrementeria.

ZAHARTZARO FEMINISTAREN EREDU

*"Askatasuna hasten da heldutakun
zahartzarora, biharrin pasa bizitza osoan
hainbeste denpora / Gugandik sumisioa,
bestik zaintzi espero da, baina gu pozik
joaten gara lagunuen ondora"*. Horrela
hasten da Boga Bogako kantua, eta hiru
protagonistek barre artean ziurtatu dute
letrak ederki islatzen duela euren taldea.
Lagunekin edonora pozik mugitzen dire-
la diote: "Ni beti izan naiz bidaiatzekoa,
baina Boga Bogan sartu geroztik beste
zera bat da", aitortu du Santisok. Hara
eta hona ibiltzen ohituta daude, inguru-
ko herrietako zineetara, esaterako, eta
etxean daudenean ere datorren bidaia
prestatzen egoten direla dio Santisok:
"Elkarri animatu eta han joaten gara.
Oraintxe sei andre Cadizera joan gara,
eta *bonba* pasa dugu". Euren artean an-
tolatzen dituzte txangoak, eta ziurtatu
dute lagungarria dela elkarri proposa-
menak egitea, taldean errazago joaten
baitira, bakarrik baino.

Parean dituzten bi gazteek miresme-
nez ikusten dituzte, eta ziurtatu dute
haien eredia dela Boga Boga bezalako
sare baten babesa izatea. Lizarzaburuk
zehaztu du taldekideak ez direla kon-
tziente egiten dutena zer baliotsua den,
eta sentipen hori lotuta dagoela euren
beharra inoiz baloratua egon ez izana-
ri. "Uste dute juntadizotxoak besterik
ez dituztela egiten, baina hemen egiten
dena oso sakona da. Nik politika hete-
rosexualen kontrako taldeetan milita-
tzen dut, eta bollerismoan dugun beldur
erraldoienetako bat zahartzea da. Zeinek
zainduko gaitu, familia heterosexualik
eduki ez badugu? Beldur diogu bakar-
dadeari. Boga Bogak demostratzen du
posible dela feminismo eta militantzia
bidez familiatik kanpoko kolektibitateak
sortzea. Edade batetik aurrera sostengu
hori eduki ahal izatea guri erokeria bat
irizten zitzaigun". Bollerentzat eredia
direla dio, eta Barinagarrementeria
ere argi du Boga Bogaren bidea jarraitu
behar dela: "Guk euren adina dugunean
beste modu batzuk izango ditugu, baina
bidea hau da: laguntasuna, kolektibita-
tea, espazio propioa, politizazioa".

Izan ere, Etxelilan juntadizo hutsak
egitetik harago, gizarteari buruzko begi-
rada kritikoa jorratzen dute, dokumenta-
lean deskribatzen duten bezala: "Onena
da ikastea bezalakoa dela, baina etsami-
nik gabe". Burgoak dio ikastaro oso baliag-
arriak izan dituztela, eta dinamizatzai-
leen lana eskertu dute hirurek: "Zeuekin



geu ere hazten joan gara". Saioak ez dira hutsalak, eta zer pentsatua ematen die hurrengo egunetan; besteak beste, gai hauek lantzen dituzte: arrazakeria, zaintza-lanak, buru osasuna, sexualitatea, kultura, zahartzaro feminista... baita taldeki-deek proposatzen dituzten hainbat auzi ere. Eztabaida mamitsuak izaten dituzte Etxelilan, eta gozamenerako tokia egiten dute gero, "*Habemus vinus*" poteorako tartean, esaterako.

Barinagarmenteria ohartu da horixe dela eredu: borroka eta gozamena uztartzea. "Ni militantzia eredu oso sakrifikatutik nator, eta konturatzen zara ez dela hori modua, hankamotz gertatzen dela borroka gozamenik gabe, eta alderantziz. Boga Boga adibide ona da: kristoren militantzia egiten dute eta borrokan eta protestan dabilta, baina hain ondo pasatzen dute!".

ANDRE NAGUSIEN AHOTSAK LEHEN LERRORA

Santisok, Gojenolak eta Burgoak eskertzen dute entzutea gazteek ere ikasi dutela eurengandik, eta ez soilik aldrebes. Baina hiru andreek ikusten dute elkarrekin gazteek deskribatutako balioa duela? "Balioa zerk, guk egiten ditugun gauzek? Bueno, bai, balioa bai", osatu dute erantzun umila. Izatez, eurek sinetsi baino, bi zuzendariek sinesten zuten horretan, eta gazteok konbentzitutak ikusteak

bultzatu zituen nagusiak dokumentalari baiezkoa ematera. Elkar animatzen joan ziren taldekideak, eta elkarrekin adostu zituzten elkarrizketen gaiak eta kokalekuak. Gainera, Lea-Artibaiko zenbait gazte feministarekin elkarlanean egin dute ikus-entzunezkoa, eskualdeko kultur sortzaileen lanak batzeko asmoz.

"Uste dute juntadizotxoak
besterik ez dituztela egiten,
baina hemen egiten dena
oso sakona da"

Mijo Lizarzaburu,
dokumentaleko zuzendarikidea

Hain zuzen, nahita egin dute modu parte hartzailean dokumentala, zuzendariek argi zutelako filma Boga Bogako kideena izan behar zela, nahiz eta hori gauzatzeko baliabideak gazteen esku egon. Prozesuan ikasi dute berrogei urte pasatxoko adin tartea izateak era-



gina duela erabiltzen den hizkuntzan ere, eta arrakala nabaritu dute. Barinagarmenteriak eman du adibidea: "Gu bion ustez agian bi gauza zehatzengatik du balioa Boga Bogak. Eta eurei galdetutakoan beste sei diferente esaten dituzte!". "Askotan pasatzen zitzaigun, guk nahi genuen gauza bat esatea, baina eurak ez ziguten hori esaten, ze eurak ez dute hori pentsatzen!", ondorioztatu du Lizarzaburuk. "Klaro, geuk bizi duguna kontatzen dugulako", erantzun dio Santisok, eta Burgoa ere ados agertu da: "Beste ibilbide bat dugu, gauza asko pasa zaizkigu bizitzan, eta ikuspuntuak ere diferenteak ditugu". Dokumentala egin aurretik zuzendariek buruan zutena eta emaitza desberdinak izan dira, baina eskertuta daude horregatik, finean, adineko emakumeen ahotsa lehen lerrora eramatea baitzen xede inportanteena: "Dokumentalean agertu behar dena da zer diren eurak, ez zer nahiko genukeen guk", berretsi dute zuzendariek.

Eta lortu dute horrela izatea, 35 minutuz andreak ari baitira berbetan, euren bizipenetatik, orain arte Boga Bogan egin dutena herrira zabaltzen. Halere, zuzendariek ohartarazi dute konturatu direla parte hartzaileek karga bat dutela: "Zuekin ikasi dugun zeozer da zelako karga duen zure herrian aurpegia emateak. Nik orain arte Ondarroatik kanpo



“Sentitzen dut nire tokia topatu dudala, elkar zaintzen garen espazioa. Badakit nahi dudana esan dezakedala, ez daukagulako barrerarik gure artean, eta hori inportantea da”

**Yolanda Burgoa Zenarruzabeitia,
Boga Bogako kidea**



Goitik behera eta ezkeretik eskuinera: Maria Dolores Gojenola, Elisabet Santiso, Yolanda Burgoa, Udane Barinagarrementeria eta Mijo Lizarzaburu.

militatu dut beti, adibidez, eta ez nintzen konturatzen beste pisu batekin jokatzeko duzula herrian: ez zara zeu, baizik eta norbaiten ahizpa, ama edo loba zara”, zuzendu zaie Lizarzaburu dokumentaleko protagonistei. Feministaldian estreinatu zuten dokumentala, Donostian, eta ahalik eta herri gehienetan erakutsi nahi dute, Boga Bogako esperientzia baliagarri izan dadin herriz herri, zahartzaro

feminista posible dela aldarrikatzeko. Santisok, Gojenolak eta Burgoak, behintzat, argi dute elkarteak asebetetzen dituela, eta horretan jarraitzeko asmoa dutela, elkarrekin arraunean, uretan zein lurrean. Honela amaitzen dute, kantuan, Ondarroako andre hauek, beso zabalik: “Alkartu gaitezen andrak. Asko ginen, asko gara, Ondarroako lagun talde bat gara Boga-boga!”. ●

Berriatuan
euskaraz deusogu!



**Berriatua
Elizateko
Udala**



EUSKARAREN EGUNEKO EGITARAUA

14:30 Eskolako umeentzat AMETSEN MUNDUA antzerkia, Patata Tropikala konpainiarekin.

21:00 Bideo gelan BIZKARSORO filma.

946 137 030
www.berriatua.org

RIKARDO ARREGI SARIAK

Laborantzari aitortza

37. Rikardo Arregi Kazetaritza sariak banatu zituzten azaroaren 26an Andoainen (Gipuzkoa). Jakoba Errekondok jaso zuen Ohorezko Mugarria saria, Euskadi Irratian eta ARGIA baratzeari buruz egindako dibulgazio lanagatik. Jenofa Berhokoirigoinek jaso zuen Kazetaritza Saria, ARGIA idatzitako *Mendez mende dabilen lanbidea, garai berrietara egokitu nahian* erreportajeagatik. Komunikazio Saria on.eus atariak jaso du euskaraz bizitzeko tresnak hainbat tipologiaoko herritarren eskura jartzeagatik. Ondoko lerroetan Errekondoren eta Berhokoirigoinen hitzartzeak jaso ditugu.

 DANI BLANCO

Jenofa Berhokoirigoin

“Sistemak ez zaituzte nahi baina jendarteak behar zaituzte, eta segituko dugu zuenaren berri ematen”

Milesker handi bat zinez. Haste-ko pertsonalki, sinpleki plazer handia eragiten didalako.

Baina batez ere mila esker sari horrekin urte luzeetan zehar egiten duzuen ekarpenagatik, fokua jartzen duzuelako euskaraz bideraturiko kazetaritzan. Bagabiltza diglosiaren erdian lanean, euskaratik eta euskaraz. Bagabiltza adimen artifizialak, algoritmoek, berri faltsuek eta ultra-aberatsek geroz eta botere gehiago duten errealtate hone-tatik, bestelako kazetaritza bat eskaini nahian, euskaratik eta euskaraz. Ez da testuinguru errazena, baina bagabiltza eta anitz gara. Hemendik besarkada bat Bilbo aldera, gaur jakin dugulako Bilbo-ko Uriola eta Prest aldizkariak hetsiko

dituztela, arrazoi ekonomikoengatik... Galera handia da. Egiten den horri gar-rantzia emateko balio du Rikardo Arregi Sariak, beraz, mila esker.

Bestalde, mila esker ARGIA lantal-deari, lantalde ederrari. Mendez men-de dabilen lanbidea garai berrietara egokitu nahian erreportajea, bada, ene ustez, adibide on bat lantalde horren izpirituaz ohartzeko: artzaingoarena ez da irakurlego alimalea, bai ala bai, bermatzen digun gai bat, ez da aktualitatean bero-bero den gai bat... eta hala ere, orriak eta azala bideratzen dizkio-gu. ARGIA bagabiltzalako kazetaritza independentea egiten: mundu trakets honetan salatu eta argira eraman beharrekoa azaleratzen eta amesten



Argazkiaren erdialdean, saridunak garaikurra eskuan: Jenofa Berhokoirigoin, Jakoba Errekondo, Arantza Egiguren eta Maitena Arraillet.

dugun bestelako mundu horren alde gure ekarpena egiten. Eta artzain horien erronkak, gogoetak, pozak, trabak, kezak eta ametsak azalera eramatea ere hortik egin zen.

Azken esker bat, hain justu, laborari horiei. Enetzat bada berezia sari hori erreportaje horrekin jaso izana. Sari hori eskaini nahi diet laborari ditudan lagun guztiei, baita laborari diren anaieri eta koinatari ere. Laborantza herrikoia eta iraunkorraren hautua egiten duten pertsona horietan bada maitasun handia, determinazio handia eta erradikaltasun handia, zentzurik ederrenean. Sistemak ez zaituzte nahi baina jendarteak behar zaituzte, beraz, milesker egiten duzenagatik. Eta ARGIA-tik, baita *Bizi Baratzeari Orria*-tik, segituko dugu zuenaren berri ematen, behin baino gehiagotan diogun bezala, ez garelako neutralak. Mila esker.



Jakoba Errekondo

“Gu gurera; Lurra, herria eta mundua hobetzeko”

Karga handia du sari honek. Pisatu al duzue? Hitz bakar bat: eskerrik asko.

Ez dut gustuko gaurko mundu hau. Eta irauli nahi dut, nahi dugu, ikusten denez. Lurra laiatu, jenio onarekin eta umore onarekin ongarritu, edertasuna erein, elkarlana landatu, jakintza birlandatu, herrigintza jorratu eta bizipoza txertatu... maitasunaren uzta jasotzeko.

Mundu zital honetan, gure aita zenak esango lukeen bezala, “mundu allubontan”, maitasunaren uzta jasotzeko sekta bat gara. Berrogeitaka urteotan, milaka lurzale eta euskara zale elkartu gara, eta duela hamar urte izena eman genion, bi hitz sinpleko izena: “baratzea” eta “bizi”, Bizi Baratzea. Eta gure lema armatu: eman eta hartu. Eman eta hartzen dugu jakintza, eta jantzi egiten gara kulturaz, bere jatorrizko, bere etimo *cultivare*-tik jantzia, denon jakintza osatuz. Eta hori dena leialtasunetik, gogokidetasunetik eta maitasunetik.

Jatorrizko kulturaren, lurra lantzearen kulturaren, aieka morfologikoa eta aieka psikologikoa elkartzen dituen antropologiatik ez gabiltza oso urrun

Bizi Baratzeako lurralde sare zabalean ari garen milaka lagunok. Zizareen moduan ari gara, ezkutuan, lurrean, lurra aberasten. Eta nonahi ari gara. Gure lanaz eta emanaz hitz egiten da azoka guztietan, taberna eta ostatuetan, familia otorduetan... Nahiko lukete besaulki eroso belusatutako horietan dauden makina bat agintarik berataz horrela aritzea jendea! Bai, bai, harropuzkeriaren traktoretik lurrari buruz eta euskarari buruz akulturizazioa hauspotzea besterik ez dakarren ezjakintasunaren hazia ereiten dute horiek, nahiago lukete, bai!

Gu gurera. Kasualtaterik ez dago. Matematikoki ezinezkoa da. Ni erdi ingeniaria naiz eta matematikoki kasualtaterik ezin da. Lurraren matematikak ederki erakusten digu hori. Gu gurera, bai. Gu, gu egiten gaituenera. Memorian eraildutako edo txertatutako hitzak; soro ipularretan mantalaren patrikatik eroritako haziaren mozkin jaso, jagon eta zabaltzen; esaeretan txirikordatutako txinparten distira berbizitzen; aldamenekoarengandik inspirazio pizgarria fu eginez hauspotzen; utopiaren lekak aletzen –Aranon eta Markinan esango

luketen eran, utopien lekak “irakurtzen”-; eta matxino, asaldatu, haserre, azpi-armonien eragile, utopia berriak asmatzen. Lurra, herria eta mundua hobetzeko. Jan, jantzi, eta jakintzatik. Gu gurera.

Ama, amaitzeko: nireak izan dira gure lurra, gure kulturaren lurra eta gure hizkuntza, gure kulturaren hizkuntza. Horiei helduta, gaur egun autista sentitzen naiz, ilargiari begira. Alajainena! Eta lurra etxetik datorkit, hizkuntza bezala. Baina gure garaian, gazteleraz ikasi genuen eta Joxepa eta Benitoren alaba gure ama Garbiñek, eta Joxepa eta Dionisioren seme gure aita Jexux Mari zenak, garaiko lehen gau-eskolara bidali gintuzten. Hain justu, gaurko sariak gorazarre egiten dion Rikardo Arregik sustatutako alfabetatze gau-eskolara, Usurbilen. Han joaten ginen 10 bat urteko ume-mokoak, emakume eta gizaseme handien artera, “hilargia” h-rekin idazten zela ikastera eta desikastera. Alfabetatzearen umea naiz, alfabetatze haren kumea naiz. Eskerrik asko, Rikardo.

Rikardok harreman handia dauka Usurbilekin. Eta hemendik ideia bat eman nahi diet datorren urteko sari hau antolatzen dutenei. Datorren urtean beteko dira 60 urte Rikardo Arregik Usurbilen, nire ustez euskararen inguruan dagoen hitzaldirik onena eman zuela. Usurbilgo Udarregi bertsolariari Erremigio Mendiburuk egin zion eskultura inauguratzeko ekitaldia egin zen egunean, bazkal ondorenean eman zuen diskurtsoa. 60 urte izango dira datorren urteko maiatzaren 22an.


Eta beno, hiru hitz:

Bat, “ekin eta aurrera”. Ez itxaron. Saiatu ez hintzenaz, behintzat, ez damutzeko.

Bi, “elkarrekin elkarbanatuz”. Denon onerako. Bakarkakoa bide-zidor estua da. Bakarkako bide-zidorra motxa da.

Eta hiru, “benetakoa izan eta jator ari-tu”. Besteek diotena ez izan. Zure tonua, zure erritmoa, eta zure hautua.

Eta bukatzeko, ni itsasoa baino ikusiagoa nola naizen, txepetxa baino adituagoa, eta onddo beltza baino usainduagoa naizenez, mesedez, altxa zaitezte denok eta zutik jarri. Zuen denongatik nago gaur ni oholtza honetan eta zuen denona da gaurko mugarri hau. Txalo bat.



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Kontsumo azokak, hasiera-hasieratik

Dresden, 1434. Federiko II.a Saxoniako printze hautesleak hiriari pribilegio bat eman zion neguaren atarian azoka berezia antola zezan eta, hala, Eguberriko lehen azoka ofiziala abiatu zen. Pribilegioak ofizialtasuna eman zion Striezelmarkt-i (*striezel*-ak Dresdeneko pastelxo tipikoei esaten zitzaizkien, eta hortik datorkio izena merkatuari), baina halako azokak aspaldi egiten ziren, horien berri XII. mendetik aurrera jasota baitago dokumentuetan. Eta ez soilik Dresdenen; Behe Erdi Aroan Nuremberg, Bautzen eta Erdialdeko Europako beste hainbat hiritan ere azokak antolatzeko hasi ziren neguaren atarian.

Negua gogorra da eremu haietan, eta nekazari, abeltzain eta artisauak, salmenta txikiko garaiari aurre egiteko, aurrez diru sarrerak pilatzea komeni zitzaizkien. Eta, horregatik, erosleentzat ere negua pasatzeko egokiak ziren produktuak saltzeko azokak antolatzen hasi ziren: ogia, haragia, kandelak, arropa beroa... Zehazki, Dresdeneko haragi azoka zen jatorrian; inguruko abeltzainak hirira hurbiltzen ziren ekoizpena saldu eta neguari aurre egiteko behar zutena biltzeko.

Beraz, arrazoi ekonomikoak daude Eguberriko azoken jatorrian, eta kontsumoa bultzatzea zuten helburu hasiera-hasieratik. Dirk Spennemann historialariaren ustez, azokak egiteko beste arrazoi bat egonda ere, "Eguberriko datarekin bat egiten zutenek, elizak ospakizun kristauarekin lotu zituen berehala azoka horiek". Data-



Dresdeneko Striezelmarkt edo Eguberriko azoka 1910ean (Otto Fritzsche)

rena ez zen kointzidentzia hutsa. Bibliak ematen dituen zantzuak kontuan izanez gero, Jesukristo udaberrian jaio zela ondorioztatu daiteke, baina aspaldi Erromako elizak data propio aldatu zuen neguko solstizioarekin bat egin zezan. Lehenago solstizioaren apropiazioa egin bezala, pixkanaka Europa osora zabaldu ziren udazken amaierako azoken apropiazioa egin zuen.

Antzeko zerbait egin zuten naziek 1930eko hamarkadan, Alemanian boterea lortu zutenean. Berriki *National Geographic* aldizkarian Constanza V. Paura historian espezializatutako kazetariak zera esan du gaiari buruzko artikulu batean: "Nazien erregimenak propaganda

tresna bihurtu zituen, "alemaniar herroaren azokak" deituta. Sinbolo kristauak ezabatu zituen, eta tradizio eta arraza germanikoak goraipatzen zituzten elementu paganoak sartu zituen, azokak beren jatorri espiritualetik urrunduz". Baina esan dugu azoken jatorria ez zela espiritual, eta, finean, naziek egin zutena elizak lehenago egindakoa da: ospakizuna beren mesedetan moldatzea.

Eguberriko azoketan hasieratik hona aldatu dena kontsumo modua izan da; funtsezko lehengaien kontsumorako eta ekoizleen biziraupenerako azokak zirenak, kontsumismo neurrigabearen eredu dira gaur egun. ●



TURISMO DE PERU

Nazcako lerroak biderkatzen

Nazcako lerroak (Peru) bilatzeko adimen artifiziala erabili berri du Yamagatako unibertsitatea (Japonia) buru duen ikerlari talde batek, eta emaitza ikusgarriak lortu dituzte: duela 2.000 urte baino gehiago lurrian marraztutako beste 300dik gora lerro edo irudi topatu dituzte, orain arte ezagutzen

zirenak ia bikoiztuz. Gainera, oraindik baieztatzeke dauden beste 1.000 hautagai ere antzeman ditu AAK. Kopurua handitzeaz gain, lerroen interpretazioan ere lagun dezake ikerlanak, apaingarri isolatutzat jotzen zirenak, komunikazio eta erritu sare egituratu baten parte baitira orain. ●

Abenduak 3

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA



Bilbao

ARGIZAIOLAK



MATTIN JAUREGI
BALERDIPEKO ERLEAK

Euskal basiliza eta elizetan bada objektu xume baina hunkigarri bat, askotan oharkabea pasatzen zaiguna: argizaiola. Egurrezko pieza luzexka bat da, zinta edo metxa bat inguruan bilduta duena, eta arbasoen oroimenez pizten zena. Ez du balio praktikorik gaurko argiztapenaren ikuspegitik, baina bere sinbologia sakona da: etengabeko argiaren eta bizitzaren jarraipenaren irudia.

Garai batean, familia bakoitzak bere argizaiola zuen elizan. Etxeko andreak eramaten zuen gehienetan: zintaren muturra etxean piztu, eta argi hura eskaintzen zitzaion hildakoari, isiltasunean. “Argia ez dadila itzali”, esaten zen. Argi hori ez zen soilik hildakoarentzat; etxeko suaren jarraipena zen, etxeko arimaren sinboloa.

Kondairen arabera, argizaiolen argiak arimen bidea erakusten zuen: iluntasunean galduta zebiltzan arimek, argiaren bidez bakea aurkitzen zuten. Beste kontakizun batzuetan, argizaiola piztuta mantentzea familiaren babes espiritualak bermatzeko modua zen. Argi hori itzaltzea omenaldi bat etetea bezala zen, eta askok beldurra zioten gertatzeari.

Argizaiolen formak eta apaingarriak ere ez dira nolanahikoak. Egurrez zizelkatuta agertzen dira askotan, bizitzaren zuhaitza, izarrak, lau haizeak edo zerurako bidea irudikatzen dituzten formekin. Munduaren ikuspegi bat ematen dute, egur zati batean bilduta.

AMEZKETAN OHITURA MANTENTZEN DUTE

“Berez, desagertuta dago dagoeneko, Amezketan bakarrik eusten baitiote ohiturari.” Amezketako argizaiolen liburuan jasotzen dute nola herritarrek urtero mantentzen duten sua bizirik, hildakoen oroimenez. Han, elizako argizaiola guztiak pizten dira egun berezi batean: azaroaren 1ean, Santu Guztien egunean. “Amezketako elizako argizaiola guztiak piztuta egoten diren egun bakana da azaroaren 1ekoa... Isiltasun eta errespetu handia egoten da”.



Argizaiolak, Amezketako elizan.

Egun horretan, argizaiolen argiak ez du argiztapen fisikoa soilik ematen; gure arbasoen presentzia ekartzen du gogora. Argi txiki bakoitza izen bat, aurpegi bat, etxe bat da. Eta elizan sortzen den giro isil horrek adierazten du zenbat behar dugun oraindik argi hori: ez pizteko bakarrik, barruan sentitzeko ere bai.

Ni erle artean naiz ia egunero, eta haiek ere argiaren seme-alabak dira. Erleak eta argizaiolak gauza bera adierazten didate: bizitzaren zikloa, lan isila eta argia piztuta mantentzearen ardura. Erleek eguzkiaren arabera antolatzen dute beren bizitza; eztiaren bidez, eguzkiaren energia gordetzen dute negurako. Eta argizaiolak bezala, argia gordetzeko artea dute ofizio.

Baserrietan, garai batean, ezti erabiltzen zen argizaiolen argia elikatzeko: ar-

gizari garbitik egiten zen metxa. Hortaz, eztiaren eta argiaren arteko lotura ez da metafora hutsa, benetakoa da. Argi hura erleen lanetik zetorren. Horra arbasoen oroimena, erleen lanaren bidez piztuta.

Horregatik, nik ere, erlezain moduan, badut zeregin hori: argia ez dadila itzali. Ez soilik erlauntzetan, baizik eta gure kulturen, gure hizkuntzan eta gure ohituretan. Erleak bezain xumeak eta etengabeak izan behar dugu, argizaiolen sua bezalako argi apal bat mantentzen.

Azaroaren 1ean, Amezketako elizan argizaiola guztiak piztu ziren berriro. Eta ni pentsatzen egon nintzen: elizako argi horiek eta nire erlauntzetako mugimendua, bi mundu desberdin, baina sustrai berekoak dira. Argiaren zaindariak, bakoitza bere modura. ●

A ZE FAUNA!

OZEANOETAKO
ABESLARIAIRATI DIEZ VIRTO
ARANZADIKO KIDEA

Xibarta bat lau metro inguruko gorputzarekin jaiotzen da, eta 700 bat kiloko pisuarekin. Egunero bere amari 400 litro esne ateratzen dizkio, sei hilabetez. Hain da koipetsua eta elikagarria esnea, ia solidoa baita. Itsaso tropikaletan jaiotzen dira, neguan, amak udara itsaso polarretan pasa ostean. Eremu batetik besterako bidaian, euskal kostaldetik pasa ohi dira.

Xibarta (*Megaptera novaeangliae*) zetazeo bizardun bat da, arrazoi askorentatik ezaguna. Zetazeo fotogenikoen eta fotografiatuena da seguruenik; ez du asko izutzen gizakiak, eta gustuko du itsasontzi turistikoetara gerturatu eta airean salto ikusgarriak egitea. Euskal kostaldean ibiltzen diren halako barkuek ikusi ohi dute xibartaren bat noizean behin.

Zetazeo espezie honen berezitasunetako bat da gorputzeko hainbat ataletan konkorrak dituela, karatxoak bailiran. Buru aldean dituen tuberkulu izeneko konkorrak ile-folikulu bestigialak dira. Hegatsen ertzetan ere baditu konkorrak, baina kasu horretan, azalean itsasten zaizkien lanperna eta bestelako parasitoak dira jatorria.

Hain zuzen ere, atzeko hegatsen konkorrak horiek marrazten dituzten ertzak oso baliagarriak dira animalia hauek ikertzeko, indibiduo bakoitzak ertz ezberdin bat izaten baitu. Ur azpian sartzera doazen aldiro, normalean, atzeko hegatsa uretatik ateratzen dute xibartek eta hegatsaren azpiko aurpegia ikusi ahal zaio une horretan. Indibiduo bakoitzak zuri eta beltz patroia berezia izaten du, eta hori ere erabiltzen da identifikazio modura. Argazki gehienetako izarra izan ohi da xibarten atzeko isats tentea.

Askok ikertu den animalia da, besteak beste, erabiltzen dituen ehiza teknika sofistikatuengatik. Xibartek udarak Ipar Poloko ur hotz eta aberatsetan igarotzen dituzte, krilla eta arrain txikiak jan eta

XIBARTA

Megaptera novaeangliae

TALDEA: Ornoduna / Ugaztuna / Zetazeoa / Mistizetoa.

NEURRIA: Emeak arrak baino handiagoak dira, ugaztunetan ohikoa ez dena. Emeek 15-19 m neurtzen dute, arrek 11-17 metro. 30-40 tona pisatzen dute.

NON BIZI DA? Itsaso guztietan. Urtero migratzen dute.

ZER JATEN DU? Krillak eta arrain txikiak.

BABES MAILA: "Kezka txikiko" izendatua. Gehiegizko ehizaren ondorioz, xibarten populazioa %90 murriztu zen 1966an ezarritako luzamenduaren aurretik. Ordutik, populazioa leheneratzen ari da. Egun, munduan 84.000 ale daudela uste da.

jan. Ehizatzeke erabiltzen duten teknika bitxietako bat da "burbuilien sarea". Ehiza estrategia horretan, xibarta taldetxo bat igerian hasten da zirkulutan, justu arrain sarda baten azpian. Momentu jakin batean, burbuilak askatzen hasten dira, zilindro bat sortzen dute haiekin eta goian duten sarda zilindroaren erdian harrapatuta geratzen da. Arrainek alde egin ezin dutela aprobetxatuz, xibartek ahoa ireki eta denak batera gorantz egiten dute igeri, arrainak irentsiaz.

Baina agian xibartei fama eman dien pisuzko arrazoi bat, euren kantuak dira. Arrek eta emeek soinuak igortzen dituzte, soinuen bidez komunikatzen dira, baina ezagunenak arrek soilik egiten dituzten kantuak dira. Kantu horiek hamar eta hogeita minutu artean iraun ohi dituzte, eta eremu bateko xibartek kantu bera errepikatzen dute. Ez dago oso argi zein den kantuen arrazoiak; arrek soilik egiten dituztela kontuan hartuta, ugalketarekin eta arren arteko lehiarekin erlazionatuta egon daitekeela uste da.

Zetazeo erraldoi hauek burutzen dute ugaztunen artean migrazio luzeena. Urtero, 25.000 bat kilometro egiten dituzte igeri, eta euren kantuen oihartzunak mundu osoko ozeanoetan entzuten dira. ●



J. MAUGHN

TXIN-TXINAREN PALMA-ZUHAITZAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Nire inguruan maitale gutxi dituzte. Palma-zuhaitzek. Maitari edo amatzaila gutxi horiek zale suetsuak dira, bai horixe! Gehienek, ordea, kanpotartzat jo eta muturreko eskuindarrek immigranteak bezala errefusatzeko dituzte.

Ez dakit “palma-zuhaitz” esatea oso egokia den, baina “palmondo” baino aproposagoa bai. Izan ere, zuhaitz baten imajina al dakarkigu palma-zuhaitzak? Gainontzeko ondo edo arbola-ondo guztiak bezala, palmondoa guretzako mozkin diren fruitu aleak ematen dituen palma zuhaitza izan beharko litzateke. Palma-hurra edo datila da ezagutzen dugun fruitu bakarra, eta arbola, datilondoa edo datil-palmondoa (*Phoenix dactylifera*). Horrek beharko luke izan palmondoa, baina palma zuhaitz guztiei “palmondo” esateko ohitura zabaldu da. Izen asko erabili izan ditugu, baina, hiztegitik gure edo guru batek izen jakin bat hautatzen duenean, horra denok bere uberan. Datilondo eta datil-palmondoz gain baditugu ba palmondo, palmatze, palma, palma-ondo, palmlandare, palma-zuhaitz eta palma-zuhamu behintzat bai. Zale gutxi baina Euskal Herrian oso gureak ditugun seinale. Palmatzeak urrutikoak direla dirudi, baina badugu bat oso hurbilekoa, berez Iberiar penintsulakoa dena baina mediterranearen itsasaldekoa: “palmondo nanoa” esaten diote, “palma-zuhaitz nanoa” (*Chamaerops humilis*).

Palma-zuhaitz jakin batek badu gurekin lotura, behia uztarrira estu lotzen duen uztar-uharen tankerako hedea. Istorio polit bat aipatzen dugu maiz, baina ez dut inoiz bere benetakotasunaren frogargirik topatu. Esaten da, Ameriketara bizimodu hobe baten bila joaten ziren euskaldun zenbait dirua lodi egin eta hona bueltatzen zirenean, jaiotetxearen atari-aurrean palma-zuhaitz bat landatzen zutela, etxe horretako kasta etorki-

zunerako ondo diruztatua zela adierazteko. Hemen etxeen aurrean topatzen diren palma-zuhaitz gehienak Txinako palma-zuhaitza edo kalamu palma-zuhaitza dira (*Trachycarpus fortunei*); urrutitik ekarritako objektu baliotsuak.

Lehengo mendean mundu guztiko palma-zuhaitz asko ekarri ditugu, batik bat itsasaldeko herri eta hiri turistikoetara. Garai bateko turista kasinozale aberastsei gure herriak Mediterraneo inguruko gune sofistikatuak inbidiarik ez zutela adierazteko, eta bere eta gure egoaren mokofinzaletasuna elikatzeko.

Azken finean, palma-zuhaitzek diruaren arrastoa marrazten dute gure geografian. Artzainak ardiak eta itzainak idiak sen edo marka bereizia eginez xakitu eta markatzen dituzten bezala, palma-zuhaitzak gure mapetan dirua non pilatuta dagoen eta nondik nora mugitzen den xahorde edo ikurkun gisakoak dira.

Diruak baditu zuloak ere. Aspaldi Mediterraneo aldean zebilen izurrite gogorra iritsi da gurera. Palma-zuhaitz gehienek ezaugarri nagusietakoa da, hazi eta luzatzeko begi edo kimu bakar bat izatea. Ba begi horixe du bazka intsektu txatxu batek, eta harrapatzen duena hil egiten du. Gurgurio bat da: mokodun gorria (*Rhynchophorus ferrugineus*). Galiziatik ekialderantz dator eta Bilbon beldur dira. Bilbon herri lurretan 228 palma-zuhaitz dituzte eta gurgurioari aurre egiteko plangintza bat eraiki dute: intsektuak garaiz antzemateko tranpak jartzea, badaezpadako tratamenduak egitea eta etengabeko ikuskaritzarekin jarraitzea. Behar izanez gero endoterapia gauzatuko litzateke, hau da, gurgurioa hiltzeko pozoia zuhaitzei injeztatzea.

Laster ditugu antzeko lanetan sartuta itsasaldeko herri turistazaleak, txi-txin diruaren hotsaren marka kokatzailea nork salbatuko. ●



TOKIXAN

OÑATIKO BI LURSAILEN LAGAPENA, TOKIKO EKOIZPEN AGROEKOLOGIKORAKO



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Urteak daramatzate Debagoienan elikadura, kontsumo eta ekoizpen iraunkorraren alde lanean Debagoiena 2030 sarearen bidez. Ibilbide horretan pauso garrantzitsua eman berri dute: Tokixan elkarteak sortu dute eta Oñatin bi lursailen lagapena gauzatu. “Tokixan proiektua lehenagotik zetorren, baina elkarteak irailean sortu dugu, elikadura sisteman eragiteko helburuarekin eta agroekologia eta eredu kolektiboa oinarri hartuta”, adierazi du Mikel Roman Larrabe elkarteak. Oñatiko Udalak proiektuko helburuekin bat egin du, eta San Martin fundazioarekin egindako hitzarmenaren bidez, bi lursail egitasmoari lagatzea adostu dute.

LURSAILEN ERABILERA-LAGAPENA

Tokixan proiektua bultzatzen ari dira Bergarako Ereindajan, Biolur elkarteak, Debagoienako Landa Garapenerako Elkartea, Oñatiko Udalak, Gizabidea fundazioa eta Fagor taldea. “Proiektuak hiru ildo nagusi ditu: kontsumoa, ekoizpena eta horniketarako. Ekoizpenaren alorrari begira sortu da lurren lagapenerako egitasmoa”, azaldu du Romanek. San Martin fundazioak bi lursailen erabilera lagapena egin dio Tokixani, irabazi asmorik gabeko proiektua delako eta Oñatiko herriarentzat onurak dakartzalako. “Udalak eta fundazioak egitasmoari baliabideak eskaini nahi izan dizkio, helburuekin bat egiten dugulako eta elikadura sisteman inguruan zehaztua dugun ekintza planeko bi egitasmo heltzen dituelako”, azaldu du Izaro Elorza Arregi



Lursailen lagapena sinatu zen momentua, Zubillagako lurretan bertan.

alkateak eta fundazioko lehendakariak, eta gaineratu du proiektua bat datorrela fundazioaren helburuekin ere.

Lursailak herriko bi tokitako eremuak dira. Usako guneko lursaila da bat, 21.800 metro karratu ingurukoa, eta Zubillaga auzokoa bestea, 25.800 bat metro karratukoa. “Zubillagan baserria ere badago, baita negutegiak eta bestelako azpiegiturak ere”, azaldu du Romanek. Bertan 2026an ekoizpen proiektua martxan egotea espero dute: “Aipatutako lursailen hiru ekoizleko talde bat egitea da lehen asmoa, eta 2027 amaierarako, beste lursailen beste hiru lagunentzako test gunea martxan jartzea”.

TEST-GUNEA

Agroekologia oinarri duten proiektu kolektiboak bultzatu nahi dituzte egitasmo-

tik, bai dagoeneko martxan daudenak, baita instalazio berriak ere. “Izena ematen dutenek ikastaro bat egingen dute, eta bertan aurkeztu beharko dute haien proiektua. Pertsona edo talde bakoitzari bide orri bat proposatuko zaio”, adierazi du Romanek. Ikastaroaren alde praktikoa, gainera, inguruko hainbat baserritan jorratuko dute test-guneko kideek.

Proiektuaren bultzatzaileek nabarmendu dutenez, aurkezten den jendearen beharretara egokitzeta da haien asmoa. “Sektorean urteetako esperientzia duen norbait badator, agian ez du test gunerik beharko, baina beste errekurtsio batzuk bai; bada, horiek eskainiko dizkiogu. Eta, aldiz, Fraisorotik atera berri den norbait badator, ziurrenik instalatu baino lehen test-gunea beharko du proba egiteko”, azaldu du. ●



Zigilu hauen atzean, zapora on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak. Jakinduria eta lana daude.



NAVARRA : NAFARROA
Una forma de funcionar | Our way of life | Gure modurik onena

“ ”

Birziklapen erabatekoa behar dugu: ez utzi jendeari luzaro botere-posizioan egoten

Eider Rodriguez

Azaroan aurkeztutako *Dena zulo bera zen* liburuaz (Susa, 2025) hitz egiteko geratua nengoen Eider Rodriguezekin, baina audio-mezua bota zidan hitzorduaren aurreko gauean: “Nazkatuta nago liburuaz hitz egiteaz; ahituta nago diskurtsiboki”. Zita mantendu dugu, beraz, eta eguazten haizetsu batez batu gara lantoki duen EHUren Ibaetako campus ondoko tabernan, baina gaia aldatuta: “Hitz egin dezagun beste edozertaz.”

 LEIRE VARGAS NIETO  DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Dena zulo bera zen-i buruzko elkarrizketa egiteko proposamena luzatu nizun berez, baina gurago duzu liburutik aldendu. Zergatik?

Ez dut sentitzen ezer esateko daukadanik liburuaz. Askotan esaten da, baina, kasu honetan, inoiz baino gertuago dago errealitatetik. Sor dezaket diskurtso bat liburuaren inguruan; baina interesgarriagoa zait literaturaz hitz egitea, politikaz, historiaz...

Gainera, nago jendeak bilatzen duena dela lana azal dezazun, eman diezaiezun irakurketarako halako gida-orri bat. Eta horrek egiten duena da irakurleari esperientzia mugatu. Ez da hala?

Bai. Nik ikusten dut berridazten pasatzen dudala denbora asko, erabakitzen hitz

hau kentzea, gehiegi esaten duelako, edo beste hau jartzea... Eta halako lan zehatz, zorrotz eta xehea egin eta gero, hondatu egiten dugula, elkarrizketen bidez, liburu gehiegi ixtean. Nik nahiko nuke gerturatz dena gerturatu dadila nahi duen tokitik, ahal duen tokitik, eta iritsi dadila nahi duen tokira eta behar duen tokira. Nahiko elementu ematen ditu liburuak hori horrela izan dadin.

Kasu horretan, liburuaren edukian sartu beharrean, goazen formatura: ipuinera buelta egin duzu hemen. Aspalditik idazten dituzu ipuinak, baina nobelan ere egin zenuen saiakera aurrekoan.

Aurreko liburua, *Eraikuntzarako materiala* (Susa, 2021), nobela izan zen, eta ezinbestekoa izan zen nire idazle-ibilbi-

dean, nolabait. Ipuin-liburu hau idazten ari nintzen orduan, aitaren heriotza gertatu eta sorkuntza-lanaren erdian jarri zitzaidanean. Horrek eraman ninduen nobela hori idaztera. Baina oso argi neukan sartu-irten bat zela; ez-fikziozko nobela zen, gainera... Eta azken urtea eman dut ipuin-liburu hau idazten, hasi eta buka idatzi dudana beste nobela batekin batera.

Ederra lana! Joan den urtean jaso zenuen Xabier Lete bekak izango du zerikusirik, ezta?

Hori da. Bekari esker, ohiko lanetik bi urteko lizentzia hartu eta nobela bat idazteko asmoa neukan, eta azkenean egin dudana da bi urtean nobela idatzi partez, urtebetean ipuin-liburu hau bukatu, eta nobela idatzi.

Urte emankorra izan da, beraz.

Kontua da ez gaudela ohituta horretara bakarrik egotera, ez? Alde horretatik oso berezia izan da urte hau.

Iruditzen zaizu halako bekak izatea badela sorkuntza bere onenera eramateko modua?

Bai, behintzat denbora batez sorkuntzari emana bizi ahal izatea litzateke sorkuntzarentzako baldintzarik onena. Uste dut halako beka batek asko errazten duela. Bestela, bi ordu daukazdu, eta idazten jartzen zarenerako... Pentsatu ere egin behar da! Ibili egin behar da, nekatu egin behar da, zalantzak eduki behar dira... Zalantza da ba ote daukagun denborarik horretarako guztirako, edo daukagun denbora apurra erabiltzen dugun idazteko, produzitzeko, zentzu materialean. Ukigarria edo ikusgarria ez den denbora hori guztia ere aldarrikatu behar dugu. Baina oso zaila da, bitartekari asko daudelako tartean, eta gauza neurgarriak nahi dituztelako. Eta sorkuntza ez da neurgarria, haren parte txiki bat bakarrik neur daiteke; eskaintzen dugun hori.

Zure lanean, azpimarratzekoa den gauzetako bat da zalantzei edo galderei uzten diezun tarte. Mezua, askotan, galdera bat izan daiteke, edo hausnartzeko bide bat, ez?

Idazten hasi aurretik argi izaten dut kontatu nahi dudana, baina ez da izaten mezu bat, zehazki, baizik eta oso gauza sotilak. Diozun bezala: zalantza bat, beldur bat, ziurtasun bat, kontraesan bat, sentsazio bat, jokabide arraro bat... Oso gauza txikiak izaten dira, baina beren txikitasunean misterio handia daramatenak. Eta haiekin datorren galdera da: zergatik da horrenbesteko misterioa halako gauza txikia? Zer dago horren atzean? Alde horretatik, ez dut idazten hainbeste mezuarekin, baina bai txikitasun horren atzeko misterioarekin.

Askotan, arte politikoa horrekin lotu izan da: mezu argi bat bidaltzen duten lanekin. Niri sarri sortzen zaidan beldurra da, nire interesgunea eremu batez ere intimoa izanda, ea hori politiko moduan irakurriko ote den. Pentsatu duzu horren inguruan?

Erabat partekatzen dut aipatzen du-

zun hori, eta izaten dut beldurra: nola izango da irakurria hau? Baina iristen da momentu bat idazten duzunean non beldur hori kendu egin behar duzun. Ez dakit nori irakurri nion orain dela gutxi: "Idatzi idazterakoan traba egiten dizun beldur hori paretik kenduko bazenu idatziko zenukeen moduan." Hori lortzea da askatasuna.

Bestalde, nire hezkuntza afektibo-sentimentala guztiz politikoa izan da, eta asko-asko inporta zait politika bere zentzu zabal eta interesgarrian. Ez bakarrik politika instituzionala. Orduan, konfiantza daukat hori iragazi egiten dela. Gure kontraesanekin: politikaren zeregina, azkenean, gauzak asko zedarritzea, mugatzea edo bideratzea da, eta idazlearen zeregina, berriz, da askatasun-esparruak irabaztea. Pentsatzeko, sentitzeko, eta politika egiteko ere bai.

Liburuko protagonistetako askok pisutzat dute haien gorpuztasuna. Badu loturarik emakume moduan gizarteratua izatearekin.

Egia esan, nik ez dut hain kontzeptu orokorrekin lan egiten, baina egia da atera



egiten direla. Uste dut zerikusia daukala generoarekin, esan duzun bezala, eta nik neuk adinean aurrera egitearekin.

Nik ez nuke nahi nire gorputza arrotz sentitu. Baina ikusten dut, bai sare sozialetan, bai prentsan, baita farmazia batean sartzen naizenean ere, horretara bideratzen nautela. Beraz, asko sumintzen naiz. Ikusten ditut nire lagun minak, jende oso baliotsu eta interesantea, erabat kateatuta edertasunaren galerarekin, zahartzaroarekin... Ez dutenak beren gorputza errekonozitzen. Eta, baita ere, lanak ematen dien etekin apurraren portzentaje beldurgarria gastatzen beren gorputzaren kontrako gudan. Eta ez da nire lagunak zoratuta daukelako, baizik eta oso zaila delako, gaiaren inguruko etengabeko bonbardaketan bizita, erdi-sano mantentzea. Eta uste dut nire erdi-sano, erdi bakarrik, mantentzeko modua badela horri buruz idaztea.

Esango nuke etengabe bultzatzen gaituztela gure gorputzari ematera haren errealtatearekin zerikusirik ez duten balioak, balio sozial eta abstraktuak, eta azkenean eragiten dutena dela gure gorputza ikustea kontrolatu beharreko zeratzat, ia maskota bat izango bazenu bezala, baina, gainera, ordezkatu egiten zaituena, ez? Eta hor zaude, etengabeko borroka horretan gorputzarekin.

Erabat. Eta asko isolatzen duen zerbait da, zu bakarrik zarelako, zure kontra. Eta

bizitzaren kontra: bizi garelako zahartzen gara. Beraz, zein da irtenbidea?

Euskal Herrian beste literatur sistema batzuetan baino gehiago eskatzen zaio idazleari posizioa dadin, edo, bestela, zuzenean kokatzen da alde batean edo bestean. Zer sentiarazten dizu horrek?

Ni 1977koa naiz eta Oreretan (Gipuzkoa) hazia. Guk, kalean topo egin eta elkarri begiratzen genionean, zuzenean katalogatzen genuen elkar ideologia politikoari zegokionez, nahiz eta gero lagunak edo ezagunak izan. Ni hortik nator. Horrek badauka parte interesante bat, eta da gure literatura, orokorrean, berdin du nondik idatzia izan, oso dagoela politikari lotua. Horrek ematen dizkio geruza batzuk beste literatura batzuek ez dauzkatenak. Azkenean, gatazka bati oso lotua zaudenean, horrek uzten ditu arrastoak, eta parte hori niri asko interesatzen zait, nire ustez aberastu egiten duelako.

Zein da parte txarra? Ba, aberastu adina hertsia dezakeela. Izan ere, askotan lanak baloratzen ditugu haien adskripzio politikoaren arabera.

Igual belaunaldi kontua da, baina uste dut gazteok, eta batez ere gazte sortzaileok, badugula presio bat mugimendu batekiko erabat koherenteki jokatzeko. Nik neuk sentitu izan dut zalantza adierazteko beldurra.

Uste dut hori denborarekin erlatibizatu egiten dela... Nik ikusten dut zuen belaunaldia, gazteen artean bi bando oso bereizi horiek, baina ni neu ez naiz gai biak hain modu hertsian bereizteko. Niri tokatu zait beste bando batzuetan egotea, eta adinak salbatzen nau zentzu horretan. Baina guztiz ulertzen dut; nik ere bizi izan dut hori, "gutasun" hori indartzeko beharra. Baina uste dut adinarekin gutasun hori diluitzen doala, edo ertzak joaten direla malgutzen, eta gu horretan jende gehiago kabitzen dela.

Horretara nindoan: iruditzen zait uste dela talde markatu horietakoren batekin bat egitea dela indibidualismoari ihes egiteko eta konpromiso politikoa adierazteko modu bakarra.

Uste dut, hori, borroka horien baitako egiteko moduen alderdi ezinbestekoa dela. Baina, gero, aldentzen zarenean eta adinean gora zoazenean, ez duzu hain horrela ikusten. Adibidez, zalantza ari garelara: idazle batek, edo sortzaile batek, ezin du zalantzarik ez egin. Bere harrobiaren parte handi bat hortik dator, zalantzatik, edo argi ikusten ez duenetik. Horrek ez du esan nahi gero nik ezin dudarik posizio jakin bat eduki, are, posizio zehatz eta zurruna gauza batzuekiko. Baina, niretzako, zalantza egiteko esku-bidea askatasunaren oinarrietako bat da. Eta askotan hori ahaztu egiten zaigu.



“ ”

Durangoko Azokara joan egin behar da, dituen aje guztiekin, baina dirua gelditu dadila ekoizleen eskuetan

Gutziz ados. Ni asko frustratzen nauen kontua da sentsazioa dudala, hain dugula aurrez aurreko jarrera, non etengabe sentitzen dugun gurea defendatzeko beharra eta geure buruekiko kritikotasuna galtzen dugun.

Bai. Jendaurrean ari garenean, behintzat. Uste dut, adibidez, sortzaile batek, kritikotasun hori, nahiz eta klandestinoa izan, nahiz eta gorde, ezin duela galdu. Hori baliatu behar du beti. Bestela, bukatzen duzulako, esan dugun bezala, eredia ematen literaturaren bidez. Eta ez dago gaizki, baina niri ez zait interesatzen literatura mota hori.

Gauza bat da zuk ze jarrera hartzen duzun publikoki gertaera jakin baten aurrean, zein den esparrua eta zer adierazten duzun. Eta beste bat da zein den sorkuntzaren edo literaturaren joko-zelaia, eta hor bai libertatea izan behar dela erabatekoa. Zuk badaukazu posizio bat, sinesmen politiko bat edo, are, fede bat, baina arrakala horietan dago aipatzen genuen misterio hori. Eta hori zabalduta eta arakatuta, ahalik eta zintzotasun handienarekin, iruditzen zait gure bizimodua ere hobetu daitekeela, eta gure pentsaera, egiteko moduak eta aldarrikapenak justuagoak, zehatzagoak eta hobeak izango direla.

Gainera, zure literaturak erakusten duen moduan, harreman intimoek hartzen dituzten dinamikak, eta haien askotariko ertzak, askotan ez dira logikoak, ez? Esaterako, ondo konpon gaitezke oso iritzi desberdina daukaten pertsonekin. Eta uste dut ertz eta lotura ilogiko horiek nolabait onartu eta esploratzea bilatzen dugunok beste era bateko kolektibotasunak osa ditzakegula.

Ze polita!

Bada, horri gehitzeko, ni azken hamar urteetan ikusten ari naizen gauzarik ta-

malgarrienetakoa dira botere-borrokak. Zure konfiantzazko jendea edo borrokak ikustea botere-borroka pertsonal eta ego-latren menpe... Hori oso gogorra da. Argi ibili beharra dugu horretan, eta ikusi non ari diren halakoak sortzen, eta tartean dagoen jendea paretik kendu. Uste dut birziklapen erabatekoa egin beharra dagoela, eta ez utzi jendeari luzaro botere-posizioan egoten. Baina kritikotasun eta zintzotasun handia behar da horretarako: behar da esparru bat non gure zalantzen eta kezken inguruan hitz egiteko aukera dugun.

Gaiz aldatuta. Literatura, jendearengana heltzeko, merkatuaren eta idazlearen irudiaren hain menpe dagoen honetan, zer mekanismo bilatu duzu horri aurre egiteko?

Batetik, niretzako oso garrantzitsua da isiltasuna. Ez egon behar izatea etengabe erantzuten. Eta, bestetik, lagun-talde sendo bat edukitzea, zeinarekin edozeri buruz hitz egin dezakedan.

Jende guztiak ere ez du isilik mantentzeko aukerarik, ordea.

Noski, oso zaila da zure lanak horretan duenean oinarria. Gaur egun, idazle madarikatu bat, zeinak ez baitu parte hartzen gizarteko eztabaidetan, ez baitu egiten promoziorik... Hori bai dela pibilegio bat oso gutxiren esku dagoena, eta baldintza materialei eta herentzia materialari estuki lotua. Sistemaren perbertsioetako bat hori ere bada: behartzen zaituela, nahi duzuna idatzi eta publikatu ahal izateko, presente egotera.

Zeure burua ere produktu bihurtu behar duzu, neurri batean. Merkatuari buruz ari garen honetan... Udazkenean argitaratu duzu liburua, eta, bistan denez, udazkenean argitaletxeak Durangoko Azokari begira egoten dira. Azken urteotan dezente leporatu zaio logika merkantilista ekimenari. Zer iritzi duzu horri buruz?

Ni Durangoko Azokaren defendatzaila naiz. Izan ere, azkenean, Durangoko Azokan argitaletxeek urteko etekinaren parte handi-handia eskuratzen dute. Eta nahi dut diru hori argitaletxeetara edo diskoetxeetara joan dadin, gero eta okerrago eramaten ditadalako bitartekariak, edozein arlotakoak direla ere. Beraz, uste dut Durangoko Azokara joan egin behar dela. Dituen aje guztiekin: espektakulua,

zeinek egin ilara handiagoa... Baina dirua gelditu dadila liburuak editatzen eta musika ekoizten ari diren taldeen eskuetan.

Ikusten duzu modurik, gaur egun kontua dagoen bezala, beste logika batetik egiteko hori?

Ahotsenea oso ekimen polita da, adibidez: idazleak, musikariak eta sortzaileak jartzen ditu, ez produktu bezala, baizik eta beraien lanari buruz hizketan, halako azoka erraldoi batean.

Bestalde, *mainstream*-a den guztiak *kitsch* puntu bat dauka beti. Gure arazoa da normalak izan nahi dugula, baina normalak garenean, ez dugula geure burua jasaten. Nahi dugu izan alternatiboak horretan ere. Eta, tira, borroka hori ere interesantea da, eta gauza onak ekarri dizkio Euskal Herriari. Orduan, azokak daukala puntu *kitsch*, eta nardagarri, eta *hortera*, eta “ze pereza” hori? Jakina. Egin daitezkeela paraleloki beste gauza batzuk? Jakina.

“ ”

Bad Bunnyk jotzen duenean, horra joateko arazorik ez daukagu; arazoa dugu euskaldun batek betetzen duenean areto erraldoi bat

Euskal kulturak behar du Durangoko Azoka.

Bai, uste dut baietz. Edonola, hain gara kritikoak... Ez dakit zeinek ez dakit zer estadio bete duela, eta... Baina, gero, Bad Bunnyk jotzen duenean, horra joateko arazorik ez daukagu. Arazoa dugu euskaldun batek betetzen duenean areto erraldoi bat. Baina hori zen nahi genuena! Tentsio hori inportantea da, baina ez gaitzen pasa.

Amaitzeko, liburuaren aurkezpenean aipatu zenuen “literaturaren botere eraldatzailea”. Zer eraldatzea gustatuko litzaizuke literaturaren bidez?

Gustatuko litzaide irakurleetako batzuk pertsonaien azalpean sartuta beraien bizitza errealean eragina izango duten erabakiak hartzea. ●

“ ”

Amestutakoa baino askoz ederragoa izan da anaiarekin horra heltzea

Xabat Illarregi Marzol

Laugarren finalean, txapela. Norekin, eta Joanes anaiarekin buruz burukoan. Historikoa izan da Nafarroako aurtengo txapelketa. Estu ibili dira, eta 23 urteko illarregitarrek jantzi du txapela. Bigarren faserako bien izenak esan dituztenean, orro egin du Iruñeko Nafarroa Arenak. Oraindik oihartzun horiek gogoan, biharamun gozoan hartu gaitu Xabat Illarregik.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  IÑIGO URIZ / FOKU

Zer moduz txapeldunaren biharamuna?

Pozez, finalean bezalaxe, baina nekatuta ere bai, eta oraindik ere hankak lurrean jarri gabe sentitzen naiz. Bertsok berriz entzuteko tarterik ez dut hartu oraindik.

Zein irudi, edo zein momentu daukazu gogoan iltzatuta?

Buruan argien dudana buruz burukora pasatzeko momentua izan zen, gure izenak esan zituztenekoa. Plaza ere lehertu egin zela uste dut.

Hasi eta buka, indartsu nabaritu zitzaizun bertsotan, bizkor eta ausart. Nola sentitu zinen?

Arratsalde guztia lanean eman nuela sentitzen nuen. Ez nuen sentitu bertsoa bizkor zetorkidanik, ezta gaia pare-parean jotzen nuenik ere. Hau da, ez nuen lehen momentuan argi ikusten zer kontatu nahi nuen gai bakoitzarekin. Esan didate kanpotik ez zela transmititzen irudi hori, bai zik eta kontrakoa; erraz ari nintzela, edo hori zirudiela. Ederra da hori.

Esan bezala, lan egin nuela sentitu nuen, eta horretan ongi ari nintzela. Burua jarri, eta gai bakoitzari ahalik eta ertz

gehien bilatzen saiatzen nintzen. Eta ikusten nuen egoera zailenei aurre egiteko tentle onean nembilela.

Eroso nabari zitzaizun.

Ez nengoen deseroso. Gaiak hasieratik ez nituen pare-parean ikusten, eta bilaketa lan bat eskatzen zidaten. Atzaparra lurrean sartu eta zuloa egin behar izan nuen, lur azpian zerbait zegoen ikusteko. Gero, buruz burukoan, askeago sentitu nintzen; argiago ikusten nituen gauzak.

Ausart aurkeztu zinen bakarkakoan, doinuarekin.

Ez neukan argi zein doinu erabili bakarkakoan, eta bertso eskolakoek animatu ninduten, esanez hori ongi zetorkidala. Doinu arriskatua zen, lau motz eta lau luze baititu. Baneuzkan nire beldurrak, kezkak, baina azken momentuan baietz esan nion nire buruari, eta gaizki aterako bazen ere, gutxienez saiakera eginda geldituko zela. Apustua ongi atera zitzaidan, eta horren poz handia daukat.

Finala anaiarekin kantuan hasi zenuen, zortziko handian. Hasteko modu ona izan zen, babesean?

Ederra izan zen. Aste osoa genbiltzan esaten ea ofizioaren batean edo zerbaitean elkarrekin tokatzen zitzaigun. Eta zozketan, berak bost zenbakia atera zuenean eta nik seia, segituan elkarri begiratu eta: “Ondo hasi dugu finala, eta gaurko eguna ondo joango da”.

Elkarri adierazi zenioten babes, hala nola bertsoaren amaierak elkarrekin abestuta.

Naturalki ateratzen zaigun zerbait da, beti egin dugu hala. Etxean egotea bezala izan zen.

Saio ederra egin zenuten hasi eta buka, bai zuk eta bai Joanesek, eta Saioa Alkaiza ere ongi aritu zen. Bazirudien hiruren artean zegoela buruz burukora pasatzeko aukera. Nola bizi zenuen?

Horrelako zerbait ikusten nuen nik ere, estu joango zela. Norberarena ez da inoiz argi ikusten, baina Joanes barruan ikusten nuen, eta banekien, gero, Saioa hortik egongo zela, eta bion artean ibil zitekeela. Hiru izen horiek neuzkan buruan. Buruz burukora zein bi bertsolari sartzen diren alfabetikoki esaten dute, abizenaren

arabera, eta hortaz, lehenbizi Joanes esan zutenean, Saioa kanpoan zen, eta argiago ikusi nuen nire burua.

Argazki ederra ikusi zen gero: zuon bion arteko besarkada. Oroituko da irudi hori.

Bai, nire gogoan bai behintzat. Gauzak, gero, gaur egungo munduan, azkar ahazten dira. Baina plaza lehertu zen une horretan, eta ederra izan zen. Momentu hunkigarria izan zen bertan ginenontzat; halako momentu gutxi biziko ditut txapelketan, uste dut.

Plaza lehertu eta oso bizkor hasi zineten kantuan, puntuka, umoretik gainera, Sanfermin eta San Saturnino aipatuta. Nola kudeatu zenituen emozioak, kontzentrazioa mantentzeko?

Euforia momentu bat da, baina segituan bertsotan hasi behar duzu. Burua lehenengo mekanikan ipini eta hankak lurrean jarri behar dira. Besarkada eman genuenean, gure artean aipatu genuen: "Orain bertsotara; gero ospatuko dugu ospatu behar dena". Uste dut ongi aktibatu ginelako kantuan hasteko. Puntuka, gainera, konexio berezia dugu, eta saio onak egiten ditugu normalean. Gero, seiko motza ere oso azkar joan zen. Buruz buruko osoa pasatu zitzaidan hegan, baina asko gozatutako momentua izan zen.

Azken txanpan anaiarekin lehian egotea zer moduz eramaten da?

Ametsik hoberenetan ere ez nuke imajinatuko bizitako momentua. Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean, buruz burukoan, lehenbiziko aldiz Nafarroa Arenan, horrelako momentu bat bizitzea... banekien bizitzekotan ederra izango zela, baina imajinatzen nuena baino askoz ere ederragoa izan zen.

Biek, gainera, laugarren finala zenuten. Eskarmentua pilatuta heldu zarete.

Hankak egonkortuta, edo egonarri batekin aritu gara txapelketa osoan. Eta finalak ez gintuen sorpresan harrapatu. Uste dut aurreko aldietan baino prestatuago heldu garela.

Ganbarakoan, gai politikoari heldu zion Joanesek, preso baten etxeratzea eta ongi etorria kontatuta. Zuk, aldiz, txikitaskun batetik-edo, gaixotasun bat igaro duen hauraren paretetik egin



zenuen bertsotan. Zergatik jo zenuen horra?

Presoen gaiari heltzea pentsatu nuen, etorkinena ere bai... Baina burura etorri zitzaidan gaixotasun baten ostean eskolara itzultzen den hauraren irudia, nolako goxotasunez hartzen duten lagunek. Hortik kantatzeak poetik kantatzea eskatzen zuen, eta horregatik hartu nuen. Drama egiteko balitz, seguruenik ez nuke hartuko. Baina horrela, lizentzia hartuta, funtzionatu zezakeela iruditu zitzaidan, eta uste dut hala izan zela.

Bukaerako agurrean, txapela lagunei, familiari eta bertso kideei dedikatzeaz aparte, euskarari eta euskararen aldeko borrokari ere luzatu zenion mezua. Pentsatuta zenekarren?

Aurten, egiatan, inork sinetsiko ez badit ere, ez neraman ezer pentsatuta. Joanesi aitortu nion, eta esan nion: "Txapel-dun edo txapeldunorde geratu, berdin-berdin bertso iguala botako dut, e". Ez neukan astirik ezer pentsatzeko. Zentralitatea eman nahi nion hizkuntzaren auziari, Nafarroan asko pairatzen baitugu alor horretan, eta nahi hori banekarren etxetik, uste dudalako horrelako plaza batean kantatu beharra zegoela. ●



KOOP
mitxelena
 TAMAINA HANDIKO MEKANIZATUAN BIDELAGUN

Erriaga Industrialedea
 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus



Hitz gezidunak

DIRUA XAHUTU ARRETAK		KALEAK UGARITASUN ATZIZKIA		NOR			APAL ZAMA EZARRI, KARGATU		BURU EGIN ARGAZKIKO FILMA		BILERA BATEKO GUTXIENAKO KIDE KOPURU ZERRA LUZE ETA HANDIAK	
AHAIRE, DOINU PLURALA, LABURDURA							TXIKITXO, IPOTX TRIBU					
		NORI ATZIZKIA GIPUZKOAKO UDALERRIA			BARAZKI HOSTOTSUA HAUTSAREN ARAKNIDO		PUSKA TXIKI HEGAZKINA					
ZERBAITEN KANPOALDE ELEMENTU KIMIKO									ZUHAITZ IZENA LOMEKO HERRITAR			
				ABEREA BILAU EZ ZENA						TULIOAREN IKURRA LASTERKA, KORRIKA		
POZ HANDI	BEREHALA EZ GARDEN				NEHOLAZ IRTEENA							LOGALE HANDI
							ETIKA TXAKU- RRAREN USAIMENA					
PLUTO- NIOAREN IKURRA ZUR PREZIATUA			ESANAHI BAT BAINO GEHAGO DITUEN HITZ BAKARRA									
					BAITAN KILOMETROA						ENERGIA DAUKA (AL- DERANTZIZ)	
ARGI, GARBIKI GUATE- MALAKO HERRITAR							AZALEKO GOGORGUNE, KAILU LITROA					
									ERNE			

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

2								9
	5	1					2	3
9		7		8	3		5	4
			7		6			
6		8	3	5	9			
		4		2	8		6	5
1	3			7				6
8	2	5		3		4		
7		6		9	5			1

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Frantziako udalerrria.
2. Uste, susmo.
3. Azpikerian aritzen ez dena.
4. Eskuaz heldu.
5. Baliorik gabea.

EBAZPENAK

UNLUN
ORATU
LEIAL
AIEBU
NRIU
SALON
SXS:

1	3	2	5	6	8	9	4	7
7	6	4	1	3	9	5	2	8
9	8	5	2	7	4	6	3	1
5	9	6	8	2	1	7	3	4
2	4	7	6	5	3	8	1	9
8	1	3	9	4	7	2	6	5
4	4	1	3	8	2	7	9	6
3	2	8	7	9	6	1	5	4
6	7	9	5	1	4	3	8	2

I	D	V	R	V	T	V	M	E	L	V	N	G
R	U	K	S	V	M	I	K	R	V	T	K	
E	N	V	L	U	V	K	V	B	O	V	K	
O	K	I	M	E	S	I	T	O	D			
T	V	R	O	M	O	I	R	V	K	Z	O	B
Z	V	T	O	N	I	V	K	V	L			
M	L		V	T	V	B	V	K		K	N	I
U	N	I	D		T	V	Z	V	N	I	V	G
R	O	K	S	O	K		V		I	R		T
O	R	R	V	N					I	R		E
U	L	V	M	V	Z				Z	V	L	R
D		I	T						K		E	



Kaka zuretzako 'ta

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Ezin zuen bestela izan: izenburu horrekin, afixa ikusita eta egileak Erika Olaizola eta Xanti Agirrezabala (aka, @erikaetaxanti) direla jakinda, zoroa izan behar zuen antzezlanak. Eta konplitu ditu espektatibak. Munduko gauzarik zentzugabeenekin ere barrea eragiten dakitenek soilik eragin dezakete besteengan zirrara hori, eta, egun, bi azpeitiar horiek dira onenetakoak horretan. *Renata* antzezlan eroarekin jiran dabil-tza, eta *Kaka* ekarri dute karteldegira orain, ausart, irri arina (baina ez buruarina) eragin asmoz.

Arrosa koloreko hoditeriaz beteriko atrezzoak du herriko plazak. Horixe da gertakizunaren lekua. Gau batez, kaka mokordo bat topatuko du alkateak (Mikel Laskurain). Itxuraz lanaldia luzatu zaio, eta etxera bidean atsekabe galanta hartu, hurrengo egunean ekitaldi instituzionala egitekoak baitira bertan, plazan. Lehenik antropologo ultra-aditu bati (Ainhua Aierbe) hots egingo dio, gero Poliziari (Erika Olaizola), eta alkateari eta alderdiari ipurdia garbitzen dion udaletxeko idazkaria (Xanti Agirrezabala) ere esze-

nan egongo da, politikariaren eta polizia-agentearen artean zirimolaka.

Larria da oso kaka mokordo bat herriko plazan aurkitzea. Izan ere, kontua da, istorioa kokatzen den garaian gizakiak ez duela ipurtzulerik, desagertu zitzaiola aspaldi, eta giza-gorotza kondaira bihurtua da gizartean. Inork ez du kakarik egiten: *haaainbeste* gorde ditu gizakiak esateko eta erauzteko zeuzkanak, hainbeste urtetan, dagoeneko ez duela zulerik ere. Orduan, nolatan agertu da mokordo bat herriko plazan? Horrelaxe ipiniko da abian ikerketa. Ezingo da, baina, kaka paretik kendu eta alkatea plazent utzi; antropologoaren irudiko, sekulako aurkikuntza da bertan agertu dena.

Eszenaratze bizi, fresko eta ikusteko erraza findu dute Erika Olaizolak eta Xanti Agirrezabalak. Bi espazio sortu dituzte –herriko plazaz gain, forentse proben laborategia–, eta batetik besterako saltoak ugari izan badira ere, sinpletik jo eta oholtza bitan zatitu dute, eta argiztapenarekin soilik bereizi dituzte. Musika-ren eta soinu baliabideen aldetik, agian falta izan zaio zertxobait.

KAKA

ZUZENDARITZA: Erika Olaizola eta Xanti Agirrezabala.

ANTZEZLEAK: Erika Olaizola, Xanti Agirrezabala, Mikel Laskurain eta Ainhua Aierbe.

NOIZ: azaroaren 19an.

NON: Donostiako Antzoki Zaharrean.

Olaizolak eta Agirrezabalak aspalditxotik zeukaten ideia sinple eta sotil hau buruan bueltaka: “Kaka mokordoa agertu da herriko plazan”. Hamar bat urte-edo igaro dira ideia horrekin antzezlan bat egin nahi zutela esan zutenetik; hala aitortu dute emandariaren amaieran. Orain, azken bi urteotan lan eginda, proiektua gauzatzea lortu dute AEK-k emandako Korrika Kultur Sorkuntzarako II. bekarekin. Estreinaldia egin dute Donostian, asteazken euritsu eta hotz batean, Antzoki Zaharrean; jendearen harrera beroa jaso dute. Zazpi lurraldetan barna bira luzea egitea dute desio, lekukoa Atharratzetik (Zuberoa) martxoaren 19an irtengo baita, eta ekitaldi horren atarikoak kulturalki berotzen joatea dute helburu. ●



LIBURUA

Garaien arteko solasa



EREIN

DENBORAREN ZUBIA IÑAKI ITURAIN

EREIN, 2024

ARITZ PARDINA HERRERO

Alderdi faxistaren aurrerakadaren berri emateko irratia ozen pizten duten senar-emazteena; zubia berreraikitza eta etorritako asturiarren oroitzapenena; Orio-Oxford estropadaren bueltan antolatutako ekintzarena; misio sekretua burutzera herriratu den emakume frantziarrarena. Askotariko istorioak biltzen ditu Iñaki Iturainen *Denboraren zubia* liburuak. Orizar fikziozko herrixkan kokatutako zazpi kontakizun guztira, fikzioz emanagatik ere, errealitatearen ispilu den herrian.

36ko gerraren ubera *Orion - Gerra bat barruan degula* (2014) lanean, Iturainek dokumentuetatik abiatuta bildu zituen oriotarren memoria kolektiboan iltzatura dauden gerra garaiko zenbait gertakari gogoangarri. Kronikari fokuak mugarri jakinak ditu, ostera, datu zehatzek ezarritakoak. Pausoa horietatik harago bideratzeko modua izan da *Denboraren zubia*. Hala, gerra atrezzo bilakatzen da liburuan, pertsonen arteko balizko harremanak irudikatzen eszenatokia. Gertatu

zena baino, gerta zitekeena azaleratzen du liburuak, modu sinesgarrian azalera-tu ere.

Liburuko pertsonaiek ez dute izen handien distirarik. Aitzitik, jende xehea da, betebeharren sarean bildua. Horregatik funtzionatzen du liburuak hain ondo, irakurlea berehala identifikatzen delako pertsonaien beldur eta itxaropenekin. Bestalde, idazleak Orioi (Gipuzkoa) izena aldatu badio ere, toponimoei eutsi die. Hori dela eta, oriotar irakurlearentzat ez da zaila pertsonaiak herrian kokatzea, ezta ere imajinatzea bertako etxe zaharretan dirauela euren ahotsaren oihartzunak.

Izenburuak iradokitzen duen moduan, zubia sinbolo indartsua da liburuan. Lehenik eta behin, Iturainen ariketa literarioa bera islatzen du; hau da, errealtatetik fikziorako pasabidea. Bigarrenik, liburuaren indarguneetako baten adierazgarri da: iraganaren eta orainaren arteko zubi lanarena. Denboraren zubiaren meritua da erakustea memoria historikoa

landu daitekeela datu eta dokumentuez harago ere, fikzioaren laguntzaz. Orobat, kontakizunen artean keinu eta uztardura ugari daude, agertoki bertuan gertatzen direnez gero. Azkenik, zubia bada pertsonaien arteko loturaren sinboloa ere. Nabarmenezkoa da, esaterako, *Estropada* kontakizuneko protagonistek eraikitzen dutena: xumea bada ere (bi arroaren artean jartzen duten baserriko ohola), bikain islatzen du enpatiaren beharra, ideologiaren eta alderdikeriaren ur nahasiak azpian utzi eta pertsonen arteko harremanak zuzenean zaintzeko premia, bereziki garai zailetan.

Azken buruan, liburuak ez gaitu besterik gabe iraganari begira jartzen, harritzko monumentu bati so bageunde bezala. Aitzitik, gure sustraiek nondik edaten duten erakusten digu. Oriotarra naizen neurrian, istorioek zinez hunkitu naute. Irakurketa, noski, edonorentzat da gomendagarria, erakusten baitu iragana gaur egunean biziberri daitekeela fikzioaren bitartez. ●



IKUS-ENTZUNEZKOAK



FILMAFFINITY

Minaren erresonantzia kaxa txikiak

'LA MÉCANIQUE DES FLUIDES'

(FLUIDOEN MEKANIKA)

GALA HERNÁNDEZ

2022

ZER: Bideo-saiakera

HERRIALDEA: Frantzia

IRAUPENA: 39 minutu

NON IKUSI: Filmin

AINHOA OLASO SOPELANA

Road movie bat izan zitekeen. Sarean noraezean dabilen protagonista bat, kapitalismo konputazionalaren kableatuetan barrena, Interneten galdu den naufragoaren bila.

Gutun batekin hasten da dena. Beno, bere horretan, youtuber baten aurkezpenarekin. Ordenagailuko kamera esparatruarekin ilunduta duen gaztearekin.

Un chien andalou (1929, Luis Buñuel) film laburreko hasiera gogorarazi dit. Eszena ikonikoa: bizarra mozteko labana batekin begia urratzen dio gizon batek emakume bati. Mundua ulertzeko erabiltzen dugun organoa da begia, baina Buñuelek ulertezina ulertzeko gaitasunetara zabaltzeko gonbita egiten digu.

Ordenagailuko kameratik esparatrupua kendu eta kamiseta batekin aurpegia erabat estalita azaltzen da gaztea. Etsipena gordin munduratzan du: "Bi-

zitza ezagutzen dugun bezala, galduta dago". Zasta! Labana batekin urradura. Minaren erresonantzia kaxa txiki bat Interneten, lauki zuzena.

Filma gutun batekin hasten dela kontatzen nenbilen. Gala Hernández (Murtzia, Espainia, 1993) zuzendariak narratzaile papera hartzen du, berak idatzitako gutun bat irakurtzen. Anathematic Anarchist delako bati zuzentzen zaio. *Incel* edo "nahi gabeko zelibatuen" komunitate birtualekoa den trollari.

Ohar suizida bat publikatu zuen Anathematicek, Ameriketako Estatu Batuak bere "heriotzaren erantzule" eginez. Gala, sarean saltseatzen zebilela, gutun horretara iritsi eta azpikultura misoginoarekin enpatizatze ariketan murgildu zen. "Ni ere incela naiz" pentsatu zuen hasieran, "ni ere bakarrik nago gogoz kontra, maitasunerako go-

goa izan arren, ez dut aurkitzen". Eta Anathematic Anarchisten bila hasiko da orduan.

Angustia konektatuen koordinadak pantailara daramatza ikerlari murtziarrak. (*Bideo-saiakera* formatuaren kontzeptua erabili dezakegu deskripzio gisa?). Nahasten ditu *incel* gizonen bideo mordoa eta edertasun ereduaren sailkatze matematikoak, zita aplikazioen isolatze estrategiak eta bideojoko bio-lentoetako irudiak. Interneteko artxi-boak birziklatuta, elementu digitalak bata bestearen atzetik sekuentziatuta irenstera garamatza. Bakardadearen pertsonaien enkarnazioaren bila. Itsasora botatako gutun bat, "agian eraldaketa ekarriko duen elkarrizketa" baten bila. Batzuetan ulertezina ulertzeko gaitasunetik, besteetan labanarekin zasta egiteko gogotik. ●

Memoria bai, gaur-gaurko politikeria ere bai

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Gernikan joan den astean ikusi dugun koprodukzio hispano-alemaniarrek Frank-Walter Steinmeier –Alemaniako presidentea, alajaina– ekarri du paraje hauetara. “Historiko” gisa definitu zuten bisita berehala eta nire ustez ere hala izan da; baldin eta historia ulertzen badugu Walter Benjaminek bezala, alegia, eraikitako objektu gisa, zeinaren osagai nagusia gaur egungo denbora baita. Orintxe bertan jokatzeko ari den partiduari begiratuta, askoz hobeto uler liteke zer egiten zuen bonbardaketaren biktimen omenezko ekitaldiko protagonista bakoitzak.

Steinmeierrek, adibidez. Etxekoenetzako bideo bat grabatu duela iruditzen zait, CDUko demokristauak eta SPDko sozialdemokratak pixka bat beldurtuta dauzkan AfD alderdi ultrasoszialistaren gorakadak nazizuriketa ere ekarri baitu, hitzez hitz esanez alemaniarrek ez dutela lotsatu behar beren iraganagatik –uler bedi Hitler, milioika hildakoak, kontzentrazio-esparruak eta abar–. Steinmeierrek historiaren bidez gaur egungo politika egin du, aitortu duenean Alemaniak Gernikarekin “erantzukizun historikoa” daukala. Eta ondo iruditzen zait, noski. Hobeto irudituko litzaidake, dena den, kartak bestelakoak zirenean justu kontrakoa egin izan ez balu, ezaguna baita genozidio armeniarren aurrean hartu zuen posizio negargarria –baina klaro, orduan Turkiarekin ondo konpontzea tokatzen zen–.

Dena ez da Bundesliga ordea, eta agian Herr Steinmeierrek pixka bat Championsean ere jokatu du: Alemaniak Kondor Legioarengatik barkamena eskatzen badu, ez ote da Italiak ere fitxa mugitzeko tenorea, Aviazione Legionariak operazioan parte hartu zuela kontuan izanda? Hango presidentea ere Gernikara etorriko litzateke? Ui, baina

horrek problemaren bat edo beste ekarriko luke Chigi palazioaren –lehen ministroa, Giorgia Meloni neofaxista– eta Quirinal jauregiaren –presidentea, Sergio Mattarella demokristaua– artean. Horrelako gatazkak eszenaratzea, iruditzen zait niri, interesgarria da alderdi ultren aurrean haizeak nondik jotzen duen oso ondo ez dakiten zentro-ekzter eta zentro-eskuin europarrentzat, sikiera bizirik daudela erakusteko.

Baina utz ditzagun europarrak beren kontuekin, guk gureak dauzkagu-eta. Imanol Pradales lehendakaria ere hantxe zegoen; baita bisita ofizialarekin lotuta Madrilgo Zarzuela jauregian aurretik egin zen oturuntzan ere. Adi datuari: 20 urte baino gehiago zeramatzan lehendakari batek Espainiako erregearen palazioa bisitatu gabe. “Inork ez du zantalzan jartzen Espainiako Estatu hark ez daukala zerikusirik gaur egungoarekin” ere adierazi zuen joan den ostiralean Eusko Legebiltzarrean eta, tira, hori sinpleki faltsua da, izan ere 1) bai, batek baino gehiagok jartzen du zantalzan hori, zeren 2) Espainiako Trantsizioa “lege batetik beste lege batera, legearen

bidez” egin baitzen, Torcuato Fernandez Miranda *dixit*, frankismoa hautsi gabe.

Ai, baina itxoin, hori ere esan du EAJk. Izan ere, EAJk beti emititzen du mezu bat baino gehiago aldi berean, horrela Pradalesen diplomazia gustatzen ez bazaizu, hortxe duzu Estebanen *pack* abertzalea: monarkiari kritika Espainiak bonbardaketan dagokion partea aitortu ez duelako; eta autogobernua, aitortza nazionala, euzko lurreen zutunik, tartartar. Eztula bezain zaharra da bikoiztasun hori, baina funtzionatzen segitzen badu, zertarako aldatu?

Feliprest erregeaz nahiago asko ez luzatu: Gernika kiskali gabe, Gerra Zibilik gabe, frankismorik gabe eta ondorengo prestidigitazio guztiak gabe, borboitarak ahaztutako historia lirateke. Erregimenaren jarraipen azpidemokratikoa ordezkatzen duen figurak barkamena eskatu? Ez joder, ez, lepoa boluntarioi ki gillotinan jartzea bezalakoa litzateke hori. Eta erregeak behar du lepoa. Buruari eusten diolako, besteak beste. Non jantziko zuen koroa bururik gabe, e? Beste gorputz-atalen batetik dingilizka ez da ondo geratzen. ●



ARGIA EGUTEGIA 2026

Historia ahazten duen herriak bere akatsak errepikatzeko arriskua du, esan ohi denez. Baina baita, ongi egindakoak ere. Izan ere, etorkizunez kargatutako arma da historia.

Aurten ere, egunero efemeride bat.



40€ Euskarria

47€ Egutegia + Pago-egurrezko euskarria

12€ Egutegia

azoka.argia.eus
(+34) 943 37 15 45

ARGIA 2026

11 LARUNBATA

Bidalketa gastuak 5€. Bidalketa doan 40€tik gorako erosketetan
Lasarte-Oriako egoitza irekita dugu 8:00etatik 15:00etara


Abenduak 3.
Euskararen Nazioarteko Eguna



Kutxabanken ere zu zeu izan.
Bizi euskaraz.

Kutxabankeko harremanetarako aukeratu euskara.
Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu. Informa zaitez.

Kutxabanken Hizkuntza Politika
hemen ikusi: www.kutxabank.eus



Kutxabank, S.A., Kale Nagusia, 30-32, Bilbao, IFK A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.